2.- Cualquier modificación que se presente a su tramitación se deberá justificar desde el punto de vista del interés público.

3.- Toda modificación guardará relación con el motivo que la justifica, no pudiéndose incluir en el expediente otras alteraciones no relacionadas con dicho motivo o que no se mencionen de forma expresa en las descripciones y justificaciones realizadas.

Artículo 1.2.1.5.- Revisión del presente Plan.

1.- Se entiende por revisión, total o parcial, de este Plan la reconsideración de la ordenación urbanística estructural descrita en el artículo correspondiente del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de suelo y Urbanismo.

2.- De otra parte, constituirán circunstancias que aconsejan la revisión de este Plan, las siguientes:

a.- Plan honetan ezarritako bizitegitarako eta industriarako ahalmenaren ehuneko 50 agortuta egotea.

b.- Egiturazko antolamendua modu orokorrean desitxuratuko duen horniduraren bat ezartzeko beharra izatea.

c.- Biztanleria edo horren hazkunde indizea modu garrantzitsuan aldatzea, aurrez ikusten zenarekin alderatuta.

d.- Berrikuspena barne hartzen duen lurralde planeamendu bat onestea.

e.- Udalaren hiri politikaren orientazioa aldatzea.

HIRUGARREN TITULUA.- LURZORUAREN KALIFIKAZIOA

1.3.1. kapitulua.- Lurzoruaren erabilerak

1. atala. Alderdi orokorrak.

1.3.1.1. artikulua.- Lurzoruaren erabileraren definizioa.

1.- Lurzoruaren erabilerak dira lurraldeko espazio jakin batean, eraikia egonda zein ez, hirigintzako kalifikazioak onartzen dituen jardueren zehazte espaziala.

2.- Kontzeptu horrek hirigintzan baino ez dauka balioa. Horregatik, lurzoruaren araubideari eta hiri antolamenduari buruzko legedi indardunak planeamenduari ematen dizkion ahalmenen arabera ezartzen da.

1.3.1.2. artikulua.- Erabilera nagusia, erabilera osagarria eta erabilera zerbitzaria. Erabilera parekatua.

1.- Sarritan, hirigintzako jarduera bat espazio batean garatzeak erabilera bat baino gehiago biltzen ditu, eta funtzioari edota antolaketari dagokionez elkarrekin lotuta daude. Kasu horietan, erabilera nagusia izango da jardueraren funtsezko helburua den erabilera eta erabilera hori bereizgarri duena.

2.- Bestalde, erabilera osagarritzat jotzen dira erabilera nagusiari lotuta dauden eta hark egokiro funtzionatzeko ezinbestekoak (edo gutxienez, komenigarriak) dituen erabilera guztiak. Erabilera jakin bat, kasuaren eta kokapenaren arabera, batzuetan erabilera osagarri gisa eta beste batzuetan erabilera nagusi gisa ari daiteke.

3.- Erabilera kontzeptuaren barruan, nagusia zein osagarria izan, erabilerak hartzen dituzten instalazio eta/edo eraikuntzek egokiro funtzionatzeko ezinbestekoak diren zerbitzu jarduera guztiak ere sartzen dira. Horiei erabilera zerbitzariak deritze, eta funtsean eraikinetako instalazioak dira, esate baterako, zaborra biltzeko lokalak, igogailuko makineria, erregaien biltegiak eta galdara gelak, eta abar.

4.- Erabilera nagusi batekin parekatutako erabilerak dira erreferentziazko erabileren antzekoak dituztenak ezarpen baldintzak eta, halaber, lokal mugakideetako erabileren gaineko ondorioak; beraz, erabilera nagusiaren antzeko baldintzetan ezarri ohi diren erabilerak dira.

Erabilera bat erabilera nagusi batekin parekatutako erabileratzat jotzeko, honako baldintza hauetarikoren bat bete beharko du:

a.- Erabileren edukia arautzen duten ondorengo artikuluetan edo azpizonetako eraikuntza eta erabilera baldintza berariazkoetan hala adierazita egotea.

b.- Horretarako bideratutako hirigintzako udal ordenantzaren batean jasota egotea.

c.- Udalak adostua izatea, eta aldez aurretik txosten teknikoa egina izatea, eta bertan, zalantzarik gabe frogatzea puntu honetako lehenengo paragrafoan aipatzen diren baldintzak betetzen direla. Erabaki hori udalerri osoan aplikatuko da, planeamenduak zona eta azpizona bakoitzerako ezarritako helburuen arabera parekatze desberdinak ezartzeko eragozpen izan gabe; ondorioz, bide hau ezingo da inoiz erabili arazo partikularrak konpontzeko.

1.3.1.3. artikulua.- Hirigintzako arau hauetan aurreikusten ez diren erabilerak.

1.- Aurretik adierazitako sistematizazioa, baita horren garapena ere, definizio ireki eta ez-baztertzaile gisa ulertuko da. Ondorioz, Udalak tipifikatu egin ahalko ditu sistematizazio horretan espresuki aurreikusten ez diren erabilerak, euren hirigintza ondorioen eta aipatutako beste erabilera batzuenen arteko analogiaz.

a.- El agotamiento del 50 por ciento de la capacidad residencial o industrial totales previstas por este Plan.

b.- La necesidad de alguna intervención dotacional que suponga una distorsión generalizada de la ordenación estructural.

c.- La modificación significativa respecto a las previsiones de la población o de su índice de crecimiento.

d.- La aprobación de un planeamiento territorial que implique la revisión.

e.- El cambio de orientación de la política urbana municipal.

TITULO TERCERO.- CALIFICACIÓN DEL SUELO

Capítulo 1.3.1.- Usos del suelo

Sección 1ª Generalidades.

Artículo 1.3.1.1.- Definición de uso del suelo.

1.- Los usos del suelo son la concreción especial de las actividades que se admiten por la calificación urbanística en un determinado espacio del territorio, edificado o no.

2.- Este concepto tiene un valor estrictamente urbanístico, por lo que se establece a tenor de las facultades que otorga al planeamiento la legislación sobre régimen del suelo y ordenación urbana.

Artículo 1.3.1.2.- Uso Principal, uso auxiliar y uso servidor. Uso asimilado.

1.- Frecuentemente el desarrollo de una actividad urbanística en un espacio engloba a varios usos que están funcional u organizativamente ligados entre sí. En estos casos se denomina uso principal al concreto que constituye el objeto fundamental de la actividad y que lo caracteriza como tal uso.

2.- A su vez, se denomina uso auxiliar a aquellos otros usos vinculados que son imprescindibles, o al menos convenientes, para el correcto funcionamiento del principal. Un determinado uso puede actuar, según los casos y la localización, una veces como uso auxiliar u otras como uso principal.

3.- Dentro del concepto de uso, sea principal o auxiliar, se incluyen todas las actividades de servicio que resultan imprescindibles para el correcto funcionamiento de las instalaciones y/o los edificios que albergan los usos. Se denominan usos servidores y son fundamentalmente las denominadas instalaciones de los edificios, tales como locales de recogida de basuras, maquinaria de ascensor, depósitos de combustibles y cuartos de calderas, etc.

4.- Son usos asimilados a un uso principal determinado, aquéllos cuyas condiciones de implantación y efectos sobre los usos ejercidos en los locales colindantes son semejantes a los usos de referencia, por lo que, habitualmente, se implantan en condiciones similares a las del principal.

Para que un uso adquiera la consideración de uso asimilado a un uso principal deberá cumplir alguno de estos requisitos:

a.- Estar expresamente señalado como tal en los artículos siguientes que regulan el contenido de los usos o en las condiciones especificas de edificación y uso de las subzonas.

b.- Estar recogido en una ordenanza urbanística municipal destinada al efecto.

c.- Ser acordado por el Ayuntamiento, previo informe técnico en el que se demuestre de manera indubitada que se dan las circunstancias señaladas en el primer párrafo de este punto. Este acuerdo será de aplicación en todo el municipio, sin perjuicio de que puedan establecerse diferentes asimilaciones en las diversas zonas y subzonas en función de los objetivos establecidos por el planeamiento; en consecuencia, nunca podrá utilizarse esta vía para solucionar situaciones particulares.

Artículo 1.3.1.3.- Usos no previstos en las presentes Normas Urbanísticas.

1.- La sistematización reseñada posteriormente, así como el desarrollo que de la misma se efectúa, se entenderá como una definición abierta y no excluyente, por lo que el Ayuntamiento podrá tipificar los usos no previstos en aquélla de forma expresa por la analogía de sus efectos urbanísticos con los de otros usos reseñados.

2.- Parekatze hori erreferentzia falta dela-eta posible ez denean, Udalak erabileren sailkapena aldatuko du, eta planeamendu orokorreko aldaketa gisa izapidetuko du.

2. atala. Lurzoruaren erabileren sailkapena.

1.3.1.4. artikulua.- Lurzoruaren erabileren sailkapena.

1.- Lursailetan eta eraikuntza eta instalazioetan lurzoruaren erabileren kokapena arautzeko helburuarekin, lurzoruaren erabilerak ondorengo motetan sailkatu dira:

a.- Lurraldean kokatu ahal diren ala ez kontuan hartuta.

a.1 Erabilera baimenduak.

a.2 Erabilera debekatuak.

b.- Jabetza araubidearen arabera.

b.1. Erabilera publikoak.

b.2 Administrazio publikoaren erabilerak.

b.3. Erabilera pribatuak.

c.- Erabilerak eraikuntza edo instalazioren batekin lurra okupatzen duen ala ez kontuan hartuta, hori erabileraren oinarrizko ezaugarria baita.

c.1. Eraikuntza edo instalazioren bat euskarri duten erabilerak: eraikuntzazko erabilerak.

c.2. Eraikuntza edo instalazio euskarririk gabeko erabilerak: eraikuntzazkoak ez diren erabilerak.

d.- Jardueren izaeraren arabera, erabilerak mailatan eta azpimailatan bereiziz antolatu eta ordenatzen dira. Lehenengo maila ondorengo hau da:

d.1. Etxebizitza.

d.2. Industria.

d.3. Hirugarren sektorea.

d.4. Gizarte ekipamendua.

d.5. Komunikabideak eta garraioa.

d.6. Aire libreko aisia eta jolasa.

d.7. Zerbitzuetarako azpiegiturak.

d.8. Landa erabilerak.

Hurrengo ataletan, erabilera horiek azpimailetan banatu dira.

1.3.1.5. artikulua.- Erabilera baimendua, berezko erabilera, erabilera lehenetsia. Erabilera debekatua.

1.- Erabilera baimendua da erabilera nagusi gisa azaltzen dena zona bakoitzeko kalifikazio orokorreko erabilera onartuen zerrendan, baita azpizonetako xehakatuan ere.

Espezifikaziorik behar izan gabe, erabilera osagarriak, erabilera zerbitzariak eta parekatuak ere baimendutzat joko dira.

2.- Eremu edo eraikin batean baimendutako erabileren artean "berezko erabilera" deritzo eremu horren bereizgarri denari, planeamenduak onartzen duen sestra gaineko eraikigarritasun zati handiena berak hartzen duelako edo planeamenduak ezarritako lehentasun ordenan bera lehenengoa delako.

Planeamenduak berezko erabilera modu irekian, orokorrean edo bereizi gabe adierazten baldin badu, berezko erabileratzat hartuko dira hark exijitzen dituen betekizunak betetzen dituzten beheragoko azpimailetako erabilera zehatzak.

3.- Esparru bateko (zona, azpizona, lurzatia edo eraikina) araudiak erabilera baimenduetarikoren bat berezko erabileratzat finkatzen ez badu, erabilera lehenetsi bat edo batzuk ezarri ahalko ditu. Erabilera horiek planeamenduan eremuaren antolamendu egokia lortzeko komenigarrientzat jotzen direnak izango dira, eta horien ezarpena hirigintzako eta/edo eraikuntzako parametro mesedegarriagoak esleituz sustatuko da.

"Arabako Hirigintza Planeamendua Normalizatzeko Sistemak" (berarekin idatzi da plan hau) automatikoki sortutako "Hirigintzako fitxaren sintesian" jasotzen den erabilera baimenduen zerrendan hiru erabilera baimendu aipatzen dira gehienez. Bertan ezartzen den ordenak adierazten du erabilera lehenetsia dela planeamenduak agintzen duena edo, kasua denean, nahi duena.

4.- Planeamenduak lurralde eremu zehatz batean baimentzen dituen gainontzeko erabilerak, erabilera bateragarriak dira.

2.- Cuando tal equiparación no sea posible por ausencia de referencia, el Ayuntamiento reformará la clasificación de los usos, tramitándola como modificación de planeamiento general.

Sección 2ª Clasificación de los usos del suelo.

Artículo 1.3.1.4.- Clasificación de los usos del suelo.

1.- A efectos de regular la ubicación de los usos del suelo en los terrenos y en las edificaciones e instalaciones, los diversos usos del suelo se clasifican en los siguientes tipos:

a.- Según su posibilidad de ubicación en el territorio.

a.1 Usos autorizados.

a.2 Usos prohibidos.

b.- Según el régimen de propiedad.

b.1 Usos públicos.

b.2 Usos de la Administración Pública.

b.3 Usos privados.

c.- Según la característica básica de un uso de ocupar o no el terreno con edificación o instalación.

c.1 Usos sustentados en edificación o instalación: usos constructivos.

c.2 Usos no sustentados en edificación o instalación: usos no constructivos.

d.- Según la naturaleza de las actividades, los usos se disponen y ordenan desagregándose en niveles y subniveles. El primer nivel es el siguiente:

d.1 Vivienda.

d.2 Industrial.

d.3 Terciario.

d.4 Equipamiento comunitario.

d.5 Comunicaciones y transportes.

d.6 Recreo y esparcimiento al aire libre.

d.7 Infraestructuras de servicios.

d.8 Usos rurales.

En las secciones siguientes los anteriores usos se desagregan en los subniveles pertinentes.

Artículo 1.3.1.5.- Uso autorizado, uso característico, uso priorizado. Uso prohibido.

1.- Uso autorizado es aquél que, a título de uso principal, figura incluido en la lista de usos permitidos de la calificación global de cada una de las zonas y en la de la pormenorizada de las subzonas.

Sin necesidad de especificación se consideran también autorizados los usos auxiliares, los servidores y los asimilados.

2.- Dentro de los usos autorizados en un ámbito espacial o en un edificio, se denomina "uso característico" al que caracteriza al ámbito por agotar la mayor fracción de la edificabilidad, permitida por el planeamiento, sobre rasante o por tener prioridad en el orden de preferencias establecido por el planeamiento.

En el supuesto de que éste señale el uso característico de forma genérica o sin desagregar, los usos concretos de los subniveles inferiores que cumplan los requisitos exigidos por aquél tendrán todos ellos el carácter de uso característico.

3.- Cuando la normativa de un ámbito (zona, subzona, parcela o edificio), renuncie a fijar alguno de los usos autorizados como uso característico, podrá establecer uno o varios usos priorizados que serán aquellos que el planeamiento considera los más convenientes para lograr la ordenación idónea del ámbito y cuya implantación se incentiva asignándoles parámetros urbanísticos y/o edificatorios más favorables.

En la relación de usos autorizados incluida en la "Síntesis de la ficha urbanística" generada automáticamente por el "Sistema de normalización del Planeamiento Urbanístico de Álava" con el que se ha redactado el presente Plan, sólo se citan tres usos autorizados como máximo. El orden establecido en ella indica el de preferencia obligado o, en su caso, deseado por el planeamiento.

4.- Son usos compatibles todos los demás usos autorizados por el planeamiento en un ámbito espacial determinado.

5.- Oro har, erabilera debekatuak dira kalifikazioaren zehaztapenek eta segurtasuna, osasungarritasuna, lasaitasuna, kultura ondarea, natur ingurunea, urak eta komunikazio bideak babesteko xedapen orokorrek debekatzen dituztenak. Zehazki, erabilera debekatuak dira kalifikazioak onartzen dituen erabileren zerrendetan espresuki aipatzen ez direnak, arau orokor hauetako 1.3.1.3. eta 1.5.2.2. artikuluetan ezarritakoaren kalterik gabe.

1.3.1.6. artikulua.- Erabilera publikoak.

1.- Erabilera publikoak dira bizitza sozialaren ondorioz biztanleriak dauzkan beharrak betetzera bideratutakoak; administrazio organoek garatzen dituzte, sistema orokorretarako diren zonetan eta tokiko sistemetako azpizonetan kokatuta dauden lurretan eta/edo eraikin eta instalazioetan.

2.- Aurreko ezaugarrien parte izanik kontzesio administratiboaren bitartez beste erakunde bati emanda dauden erabilerak publikotzat joko dira ondorio guztietarako.

3.- Erabilera publikoak beti joko dira onartutzat, eta ez da beharrezkoa izango kalifikazioan espresuki hala adieraztea.

1.3.1.7. artikulua.- Erabilera pribatuak edo irabazizkoak.

1.- Aurreko artikuluko erabilera publikoen definizioan jasota ez dauden erabilera guztiak erabilera pribatu edo irabazizko gisa kontsideratuko dira, eta eraikigarritasunaren parte izango dira, hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian kokatuta daudenean.

2.- Halaber, planeamenduaren arabera sistema orokorrak edo toki sistemak osatu behar ez dituzten lurretan Administrazio Publikoak garatzen dituen jarduerei dagozkien Administrazio Publikoaren erabilerak ere erabilera pribatutzat joko dira.

3. atala. Etxebizitza erabileraren edukia.

1.3.1.8. artikulua.- Definizioa eta motak.

1.- Etxebizitza erabileratzat honako hau jotzen da: euren artean ahaide izan edo ez, familiaren ohiko jokaera duen talde bat eratzen duten pertsonak bizitzeko leku iraunkorrak.

2.- Etxebizitza erabileraren maila honako lehenengo azpimaila honetan bereizten da:

a. Araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitza.

b. Araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitza.

c. Prezio tasatuko etxebizitza librea.

d. Etxebizitza librea.

3.- Horrez gain, aurreko erabilerak, eraikuntza tipologiaren arabera, honela sailkatzen dira:

a. a mota: familia bakarreko eraikinean dagoen etxebizitza edo familia bakarreko etxebizitza.

b. b mota: bi etxebizitzako eraikinean dagoen etxebizitza edo bi familiako etxebizitza.

b.1. b.1 mota: familia bakarrekoa.

b.2. b.2 mota: familia anitzekoa.

c. c mota: familia bakarreko bi etxebizitza edo gehiago elkarri atxikita dituen eraikineko etxebizitza edo familia bakarreko etxebizitza atxikia.

c.1. c.1 mota: ilaran kokatutako familia bakarreko etxebizitza atxikia.

c.2. c.2 mota: familia bakarreko etxebizitza atxiki trinkoa edo erpin komun bat duena.

d. d mota: familia anitzeko araubideko bi etxebizitza edo gehiago dituen eraikinean kokatutako etxebizitza edo familia anitzeko etxebizitza.

d.1. d.1 mota: dentsitate txikiko eraikin trinko irekian dagoen familia anitzeko etxebizitza.

d.2. d.2 mota: familia anitzeko eraikuntza orokorrean dagoen familia anitzeko etxebizitza.

4.- Familia bakarreko eraikinean dagoen etxebizitza (edo familia bakarreko etxebizitza): eraikin bakarra okupatzen du, eta familia unitate bakar bat bizitzeko da.

a. Bi modalitate bereiz daitezke:

a.1. Eraikin bakartu bat hartzen duen etxebizitza edo familia bakarreko etxebizitza bakartua.

5.- Genéricamente, son usos prohibidos aquellos que lo estén por las determinaciones de la calificación y las disposiciones generales promulgadas en materia de seguridad, salubridad y tranquilidad, protección del patrimonio cultural y del medio natural, de las aguas y de las vías de comunicación. En concreto, son usos prohibidos aquéllos que no estén expresamente relacionados en las listas de usos permitidos por la calificación, sin perjuicio de lo establecido en los artículos 1.3.1.3 y 1.5.2.2 de estas Normas Generales.

Artículo 1.3.1.6.- Usos públicos.

1.- Son usos públicos los referentes a las actividades destinadas a cubrir las necesidades de la población derivada de la vida social, desarrollados por órganos de la administración en terrenos y/o edificios e instalaciones que se sitúen en las zonas destinadas a sistemas generales y en las subzonas de sistemas locales.

2.- Los usos que participando de las características anteriores, hayan sido objeto de concesión administrativa, se considerarán igualmente públicos a todos los efectos.

3.- Los usos públicos siempre se considerarán permitidos sin la necesidad de su señalamiento expreso por la calificación.

Artículo 1.3.1.7.- Usos privados o lucrativos.

1.- Todos los usos que no estén contenidos en la definición de usos públicos del artículo anterior tienen la consideración de usos privados o lucrativos y formarán parte de la edificabilidad cuando se sitúen en suelo urbano y urbanizable.

2.- También tienen la consideración de usos privados los usos de la Administración Pública referentes a las actividades desarrolladas por aquélla en terrenos que según el planeamiento no han de constituir sistemas generales o locales.

Sección 3ª Contenido del uso de vivienda.

Artículo 1.3.1.8.- Definición y clases.

1.- Se entiende por uso de vivienda la residencia permanente destinada al alojamiento de personas que configuran un núcleo con los comportamientos habituales de las familias, tengan o no, razón de parentesco.

2.- El nivel de uso de vivienda se desagrega en este primer subnivel:

a. Vivienda de protección oficial de régimen general.

b. Vivienda de protección oficial de régimen especial.

c. Vivienda libre de precio tasado.

d. Vivienda libre.

3.- Además, a continuación, los anteriores usos se desagregan, en función de la tipología edificatoria, en los siguientes:

a. Tipo a: Vivienda en edificio unifamiliar o vivienda unifamiliar.

b. Tipo b: Vivienda en edificio de dos viviendas o vivienda bifamiliar.

b.1 Tipo b.1: Unifamiliar.

b.2 Tipo b.2: Plurifamiliar.

c. Tipo c: Vivienda en edificio de más de dos viviendas unifamiliares adosadas o vivienda unifamiliar adosada.

c.1 Tipo c.1: Unifamiliar adosada en hilera.

c.2 Tipo c.2: Unifamiliar adosada compacta o con un vértice común.

d. Tipo d: Vivienda en edificio de más de dos viviendas en régimen plurifamiliar o vivienda plurifamiliar.

d.1 Tipo d.1: Plurifamiliar en edificación compacta abierta de baja densidad.

d.2 Tipo d.2: Plurifamiliar en edificación plurifamiliar general.

4.- Vivienda en edificio unifamiliar (o vivienda unifamiliar): es aquélla que ocupa en un edificio único, destinado a la residencia de una única unidad familiar.

a. Se pueden distinguir en ella dos modalidades:

a.1 La vivienda que ocupa un edificio aislado o vivienda unifamiliar aislada.

a.2. Kasu berezi gisa, binaka elkartutako edo lurzati mugakideetako mugei atxikitako eraikina hartzen duen etxebizitza.

b. Etxebizitzak honela koka daitezke lurzatiaren barruan:

b.1. Lurzati bereizi bat eraikin bakoitzerako.

b.2. Lurzati komun bat jabetza horizontalaren araubidean eratutako hainbat eraikinentzat.

5.- Bi etxebizitzako eraikinean dagoen etxebizitza (edo bi familiako etxebizitza): bi familia unitate edo bi etxebizitza hartzen dituen eraikinean dagoena.

Bi mota bereiz daitezke:

a. Familia bakarreko etxebizitza: hainbat etxebizitza horizontalean elkartuz eratutako eraikinean dago. Beraz, etxebizitza horietako gelek ezin dute bat egin plano bertikal berean.

Eraikinak itxura konpaktua izango du, eta etxebizitza bien bateraketa elementu edo gorputz bolumetriko batek baino gehiagok osatuta egonez gero, gorputz nagusiak edo bolumen handiena daukatenak atxikiz egingo da eta horiek osatuko dute fatxada jarraitua. Familia bakarreko etxebizitza bakartuko bi eraikin beren gorputz txikiagoetatik (altueran eta/edo zabaleran) elkartzearen emaitzako irtenbide arkitektonikoa ez da inoiz familia bakarreko binakako etxebizitzatzat joko.

a.1. Bi modalitate bereiz daitezke:

i Eraikin bakartuan dagoen etxebizitza.

ii. Kasu berezi gisa, binakako eraikinean edo lurzati mugakideetako mugei atxikitako eraikinean dagoen etxebizitza.

a.2. Etxebizitzak honela koka daitezke lurzatian:

i Lurzati bereizi bat etxebizitza bakoitzerako.

ii. Lurzati bereizi bat eraikin bakoitzerako.

iii. Lurzati komun bat jabetza horizontalaren araubidean eratutako hainbat eraikinentzat.

b. Familia anitzeko etxebizitza: artikulu honetako 7. puntuan zehaztutako familia anitzeko etxebizitzaren kontzeptu orokorrarekin bat dator. Etxebizitzak bertikalean elkartuz eratzen da eraikina; beraz, atari bat izan beharko du solairuetako baten arrasean, eta, oro har, eraikinean bertan dauden elementu komunetatik sartuko da etxebizitza unitate bakoitzera.

b.1. Bi modalitate bereiz daitezke:

i Eraikin bakartuan dagoen etxebizitza.

ii. Kasu berezi gisa, binakako eraikinean edo lurzati mugakideetako mugei atxikitako eraikinean dagoen etxebizitza.

b.2. Etxebizitzak honela koka daitezke lurzatian:

i Lurzati bereizi bat eraikin bakoitzerako.

ii. Lurzati komun bat jabetza horizontalaren araubidean eratutako hainbat eraikinentzat.

6.- Familia bakarreko etxebizitza atxikia da familia bakarreko bi etxebizitza edo gehiago dituen eraikinean kokatuta dagoena. Etxebizitzak elkartzeko, horizontalean atxikitzen zaizkio elkarri, bakoitzak bere ataria duela. Etxebizitzetako gelek plano bertikalean bat ez egiteko moduan elkartzen dira. Halaber, aurreko 5. puntuko a) idatz zatiko bigarren paragrafoan aipatzen diren konposizio arkitektonikoko baldintzak aplikatuko zaizkio eraikinari.

a. Erabilera eta eraikin honetan bi mota bereizten dira:

a.1. Ilaran kokatutako familia bakarreko etxebizitza atxikia: etxebizitzak bata bestearen ondoan atxikitzen zaizkio elkarri, ondoz ondokoak ez diren mehelin hormen bitartez, luzetara garatutako eraikin bat eratzen dutela.

Aldi berean, mota horretan bi modalitate hauek izan daitezke:

i Eraikin bakartuan dagoen etxebizitza.

ii. Kasu berezi gisa, binakako eraikinean edo lurzati mugakideetako mugei atxikitako eraikinean dagoen etxebizitza.

a.2. Ilaran kokatutako familia bakarreko etxebizitza trinkoa: etxebizitzak ondoz ondoko bi mehelin hormaren bidez atxikitzen zaizkio elkarri, eta denek dute ertz berbera. Eraikina beti egongo da bakartuta.

b. Bi motetan etxebizitzak honela koka daitezke lurzatian:

b.1. Lurzati bereizi bat etxebizitza bakoitzerako.

a.2 Como caso especial, la vivienda que ocupa un edificio pareado o adosado a los linderos de las parcelas colindantes.

b. Las viviendas admiten estas ubicaciones en la parcela:

b.1 En una parcela independiente para cada edificio.

b.2 En una parcela común a varios edificios constituidos en régimen de propiedad horizontal.

5.- Vivienda en edificio de dos viviendas (o vivienda bifamiliar): es aquélla que se sitúa en un edificio único, destinado a dos unidades familiares o viviendas.

Se pueden distinguir en ella dos tipos:

a. La vivienda unifamiliar: es aquélla que se sitúa en un edificio que se conforma mediante la agrupación horizontal de las viviendas por lo que ninguna de las dependencias de estas podrá coincidir en un mismo plano vertical.

El edificio tendrá forma compacta, y si estuviere integrada por varios elementos o cuerpos volumétricos la unión de las dos viviendas se realizará adosando los cuerpos principales y de mayor volumen que formarán fachada continua. La solución arquitectónica resultante de la estratagema de unir dos edificios, que responden al tipo edificatorio de la vivienda unifamiliar aislada, por sus cuerpos secundarios y menores (en altura y/o anchura) nunca tendrá la consideración de vivienda unifamiliar pareada.

a.1 Se pueden distinguir en ella dos modalidades:

i. La vivienda que se sitúa en un edificio aislado.

ii. Como caso especial, la vivienda que se sitúa en un edificio pareado o adosado a los linderos de las parcelas colindantes.

a.2 Las viviendas admiten estas ubicaciones en su parcela:

i. En una parcela independiente para cada vivienda.

ii. En una parcela independiente para cada edificio.

iii. En una parcela común a varios edificios constituidos en régimen de propiedad horizontal.

b. La vivienda plurifamiliar: responde al concepto genérico de vivienda plurifamiliar definido en el punto 7 de este artículo. El edificio se conforma mediante la agrupación vertical de las viviendas por lo que deberá poseer zaguán propio en el nivel de alguna de sus plantas, y el acceso a cada una de las unidades de vivienda se realizará, generalmente, desde elementos comunes situados en el propio edificio.

b.1 Se pueden distinguir en ella dos modalidades:

i. La vivienda que se sitúa en un edificio aislado.

ii. Como caso especial, la vivienda que se sitúa en un edificio pero pareado o adosado a los linderos de las parcelas colindantes.

b.2 Las viviendas admiten estas ubicaciones en su parcela:

i. En una parcela independiente para cada edificio.

ii. En una parcela común a varios edificios constituidos en régimen de propiedad horizontal.

6.- La vivienda unifamiliar adosada es aquélla que se sitúa en un edificio de más de dos viviendas unifamiliares. La agrupación consiste en adosar horizontalmente las diversas viviendas, de manera que se posibilite que cada una de ellas posea zaguán propio, y se realizará de forma que no coincidan en un mismo plano vertical las dependencias de las diferentes viviendas. Asimismo, al edificio le será de aplicación las condiciones de composición arquitectónica señaladas en el párrafo segundo del apartado a) del punto 5 anterior.

a. En este uso y edificio se distinguen dos tipos:

a.1. La vivienda unifamiliar adosada en hilera: las viviendas se adosan una a continuación de la otra, a través de paredes medianeras no consecutivas, conformando un edificio desarrollado longitudinalmente.

A su vez, en él se pueden dar estas dos modalidades:

i La vivienda que se sitúa en un edificio aislado.

ii Como caso especial, la vivienda que se sitúa en un edificio pareado o adosado a los linderos de las parcelas colindantes.

a.2 La vivienda unifamiliar adosada compacta: las viviendas se adosan por dos paredes medianeras consecutivas de tal modo que su arista es común a todas ellas. El edificio será siempre aislado.

b. En ambos Las viviendas admiten estas ubicaciones en su parcela:

b.1 En una parcela independiente para cada vivienda.

b.2. Lurzati bereizi bat eraikin bakoitzerako.

b.3. Lurzati komun bat jabetza horizontalaren araubidean eratutako hainbat eraikinentzat.

7.- Familia anitzeko etxebizitza hainbat etxebizitza unitate elkartzen diren eraikinean kokatuta dago. Erabilera horren ezaugarria da etxebizitza unitate bakoitzera eraikinean bertan kokatutako elementu komunetatik sartzen dela. Hala ere, ezaugarri hori ez da ezinbesteko baldintza erabilera familia anitzeko etxebizitza dela kontsideratu behar izateko; izan ere, familia bakarreko etxebizitzarako ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten arren, etxebizitza bakoitzera kanpotik sarbide propio eta independentea ahalbidetzen duten bestelako etxe multzoak izan daitezke.

a. Plan honen ondorioetarako, mota hauek bereizten dira familia anitzeko etxebizitzetan:

a.1. Dentsitate txikiko eraikin trinko eta irekian dagoen etxebizitza, hiru eta hamasei etxebizitza bitartean dituen eraikin trinko bakartu batean dagoena. Gainera, ezingo du sestraren gainetik lau solairu baino gehiago izan.

a.2. Familia anitzeko eraikin orokorrean kokatutako etxebizitzak familia anitzeko etxebizitzen eraikinetan dauden guztiak dira, aurreko idatz zatian zehaztutakoak izan ezik.

a.3. Eraikin mistoan kokatutako etxebizitza, aurrez deskribatutako eraikinekin bat ez datorren eraikinean dagoen etxebizitza da.

b. Etxebizitzak honela koka daitezke:

b.1. Lurzati bereizi bat eraikin bakoitzerako.

b.2 Lurzati komun bat jabetza horizontalaren araubidean eratutako hainbat eraikinentzat.

8.- Etxebizitza erabileraren erabilera osagarritzat jotzen dira aire libreko edo eraikuntzen barruko aparkalekuak, kirol instalazioak (igerilekua, pilotalekua etab.), txokoak eta abar.

9.- Erabilera parekatutzat hartzen dira 18 oherainoko ostatu edo egoitzak, bulegoak (Administrazio Publikoarenak barne) eta bulego profesionalak, jendearentzako zerbitzuak eskaintzen dituen txikizkako merkataritza, esaterako ile-apaindegiak eta antzekoak, eta nekazaritza turismoko edo landa turismoko establezimenduak.

4. atala.- Industria erabileraren edukia.

1.3.1.9. artikulua.- Definizioa eta motak.

1.- Industria erabileratzat hartzen da energia produktuak ateratzeko eragiketak aurrera eramatea nahiz produktuak egiteko, eraldatzeko edo konpontzeko eragiketak aurrera eramatea helburu duen erabilera. Era berean, erabilera honetan ondasun eta produktuen gordailutze, zaintza edo biltegiratze jarduerak sartzen dira, baita handizkako merkataritzak berezkoak dituen biltegiratze eta banaketa funtzioak ere.

2.- Industria erabileraren maila honako azpimaila edo modalitate hauetan banatuta dago:

a.- Meatzaritza, erauzketa industriak.

b.- Manufaktura industriak

b.1. Eraldaketa industriak.

b.2. Nekazaritza eta basogintzakoak.

c.- Eskulangintza eta produktu artistikoak.

d.- Lantegiak

d.1. Etxetresna elektrikoak konpontzeko lantegiak.

d.2. Ibilgailuak konpontzeko lantegiak.

i Konponketa elektromekanikoak.

ii. Txaparen eta pinturaren konponketak.

d.3. Eraikuntzako lanbideetako lantegiak.

e.- Biltegiak eta handizkako salerosketa.

e.1. Nekazaritza eta basogintzako ustiategiei lotutako biltegiak.

e.2 Gainontzeko biltegiak eta handizkako salerosketa.

3.- Meatzaritza edo erauzketa industriak aire zabaleko ustiategietan edo zorupekoetan mea baliabideak ateratzera bideratutako jarduerak dira, bai eta horiekin zuzenean erlazionatutako jarduera lagungarriak ere.

4.- Manufakturako eraldaketa industriak nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako (hazitokia, animalien eta nekazaritzako produktuen

b.2 En una parcela independiente para cada edificio.

b.3 En una parcela común a varios edificios constituidos en régimen de propiedad horizontal.

7.- La vivienda plurifamiliar se sitúa en un edificio en el que se agrupan varias unidades de viviendas. La característica de este uso consiste en que el acceso a cada una de las unidades de vivienda se realiza desde elementos comunes situados en el propio edificio. No obstante, dicha característica no es condición indispensable para que el uso deba ser considerado como de vivienda plurifamiliar, ya que pueden existir agrupaciones que, sin cumplir las condiciones establecidas para la vivienda unifamiliar, permitan el acceso propio e independiente a cada una de las viviendas desde el exterior de edificio.

a. A los efectos de este Plan, en la vivienda plurifamiliar se distingue:

a.1 La vivienda en edificio compacto abierto de baja densidad que se sitúa en un edificio compacto aislado en el que se agrupan de tres a dieciséis viviendas. Además no podrá sobrepasar las cuatro plantas sobre rasante.

a.2 La vivienda en edificio plurifamiliar general que es toda aquélla que se sitúa en una edificio de vivienda plurifamiliar, excluida la definida en el apartado anterior.

a.3 La vivienda en edificio mixto que es aquélla que se sitúa en un edificio que no responde a ninguno de los descritos anteriormente

b. Las viviendas admiten estas ubicaciones:

b.1 En una parcela independiente para cada edificio.

b.2 En una parcela común a varios edificios constituidos en régimen de propiedad horizontal.

8.- Se consideran usos auxiliares del uso de vivienda los aparcamientos al aire libre o en edificación, las instalaciones deportivas (piscina, frontón, etc), txokos, etc.

9.- Se consideran usos asimilados las pensiones o residencias hasta un total de 18 camas en total, las oficinas (incluidas las de la Administración Pública) y los despachos profesionales, el comercio al por menor del tipo de prestación de servicios al público como las peluquerías y similares, y los establecimientos de agroturismo y de turismo rural.

Sección 4ª Contenido del uso industrial.

Artículo 1.3.1.9.- Definición y clases.

1.- Se denomina uso industrial al que tiene por finalidad llevar a cabo operaciones de extracción de productos energéticos y de elaboración, transformación y reparación de productos. Igualmente se incluye en este uso la actividad de depósito, guarda o almacenaje de bienes y productos, así como las funciones de almacenaje y distribución de las propias del comercio mayorista.

2.- El nivel del uso industrial se desagrega en los siguientes subniveles o modalidades:

a.- Minería, industrias extractivas.

b.- Industrias manufactureras

b.1 De transformación.

b.2 Agrarias y forestales.

c.- Artesanía y productos artísticos.

d.- Talleres

d.1 Talleres de reparación de electrodomésticos.

d.2 Talleres de reparación de vehículos.

i Reparaciones electromecánicas.

ii Reparaciones de chapa y pintura.

d.3 Talleres de oficios de la construcción.

e.- Almacenes y comercio mayorista.

e.1 Almacenes vinculados a explotaciones agrarias y forestales.

e.2 Resto de almacenes y comercio mayorista.

3.- El uso de minería o industrias extractivas son las actividades encaminadas a la extracción de los recursos minerales en explotaciones a cielo abierto o en subsuelo y las actividades auxiliares vinculadas directamente a las anteriores.

4.- Las industrias manufactureras de transformación se destinan a las operaciones de transformación y manipulación de materias

tratamendua, sotoak, etab.) jarduerei lotuta ez dauden lehengaien eraldaketa eta manipulazioetarako erabiltzen dira.

5.- Eskulan eta produktu artistikoen erabilera seriekoak ez diren edo serie txikietakoak diren prozedurak erabiliz produktuak lortzea edo eraldatzea eginkizun nagusi duten jarduerak dira.

6.- Lantegien erabilera etxeko kontsumoko produktuen konponketa eta tratamendua da; etxeko kontsumoko produktuak berreskuratu edo aldatzeko helburuarekin, baina beren hasierako izaera galdu gabe, produktu horiek konpontzea helburu nagusi duten jarduerak dira.

Eraikuntzako lanbideetako lantegiek bai eraikinak, bai urbanizazio obrak egiten parte hartzen duten eraikuntzako berezko jarduerak barne hartzen dituzte.

7.- Biltegi eta handizkako salerosketa erabileratzat hartzen dira honako jarduera hauek: jarduera lokabeak —edota produkzio jarduera nagusi bati lotuta daudenak baina horretatik banandutako kokagunea behar dutenak—, baldin ondasun zein produktuak gorde edo biltegiratzeko helburua badute, bai eta handizkako salerosketarako ondasunak bildu eta banatzeko helburua badute ere.

8.- Erabilera osagarritzat jotzen dira establezimenduko administrazio eta salmenta bulegoak, jardueraren ikerketa eta garapenerako erabiltzen diren lokalak, langileen aldagelak eta atseden hartzeko guneak, zerbitzuko biltegiak, ekoizteko eta mantentzeko baliabideenak, suteen kontrako babes zerbitzuak, sortzen diren hondakinen arazketa, zaindariaren etxea eta erabilera nagusia modu egokian garatzeko beharrezkoa den beste edozein.

1.3.1.10. artikulua.- Industria erabileraren kategoriak.

Industria erabilera honako maila hauetan banatua dago:

1.- 1. kategoria. Etxebizitzarekin bateragarria den industria jarduera.

2.- 2. kategoria. Etxebizitzarekin bateragarria ez den industria jarduera.

1.3.1.11. artikulua.- Etxebizitzarekin bateragarria den industria jarduera.

1.- Eskuz edo 1 kW baino gutxiagoko potentzia duten motorrekin mugitzen diren makina edo aparatuak erabiltzen dituzten jarduerak dira.

2.- Etxebizitzen eraikinetan onartuko dira 0,03 kW/m^2-ko batez besteko potentzia muga eta gehienez ere 5 kW-eko guztizko potentzia dutenak.

3.- Potentzia mekanikoari, zarata mailei eta gas eta hauts emisioei buruzko datuak, kokapenaren arabera onartuko direnak, honako hauek dira:

Batez besteko potentzia kW/m^2-tan:	0,03
Gehieneko potentzia guztira, kW-tan:	5
Kanpoko gehieneko zarata maila egunez, dBA-tan:	40
Kanpoko gehieneko zarata maila gauez, dBA-tan	0
Barruko gehieneko zarata maila egunez, dBA-tan:	55
Barruko gehieneko zarata maila gauez, dBA-tan	0
Ringelmann-en indizea funtzionamenduan:	0
Ringelmann-en indizea martxan jartzean:	0
Gehieneko hauts emisioa kg/h-tan:	1,5

4.- Goizeko 8etatik gaueko 10etara arte izango da eguna, eta gainontzekoa, berriz, gaua.

5.- Ringelmann-en belzte indizea errekuntzako gasei buruzkoa da.

6.- Soinu mailak fatxadatik 1,5 metrora neurtuko dira, industria jardueretarako erabiltzen den eraikuntzaren kanpoko aldean eta barruan ere bai, eta hondoko zarata mailatik gehienez 3 dBA-ko igoera onartuko da. Industriako lokalaren barruan egiten den neurketa ate eta leiho guztiak itxita daudela egingo da.

Baldintza bien egiaztapena industria guztiz geldi dagoela eta elementu guztiak funtzionatzen daudela egingo da.

primas no vinculadas a actividades agropecuarias forestales (semilleros, tratamiento de productos animales y agrícolas, bodegas, etc).

5.- El uso de artesanía y productos artísticos constituyen las actividades cuya función principal consiste en la obtención o transformación de productos por procedimientos no seriados o en pequeñas series.

6.- El uso de talleres consiste en la reparación y tratamiento de productos de consumo doméstico; son actividades cuya función principal es reparar o tratar objetos de consumo doméstico con objeto de restaurarlos o modificarlos, pero sin que pierdan su naturaleza inicial.

Los talleres de oficios de la construcción comprenden las actividades propias de la construcción que participan en la ejecución tanto de edificios como en las obras de urbanización.

7.- Se denomina uso de almacenes y comercio mayorista a las actividades independientes o vinculadas a una actividad principal de producción pero que requieren espacio separado de ella, cuyo objeto principal es el depósito, guarda o almacenaje de bienes y productos, así como las funciones de almacenaje y distribución de las propias del comercio mayorista.

8.- Se consideran usos auxiliares las oficinas administrativas y de ventas del establecimiento, los locales destinados a la investigación y el desarrollo de la actividad, los vestuarios y los esparcimientos de los trabajadores, los almacenes de servicio, de medios de producción y mantenimiento, los servicios de protección contra incendios, la depuración propia de los residuos generados, la vivienda de guardia y cualquier otro, preciso para el correcto desarrollo del uso principal.

Artículo 1.3.1.10.- Categorías del uso industrial.

El uso industrial se divide en estas categorías:

1.- Categoría 1ª. Actividad de industria compatible con la vivienda.

2.- Categoría 2ª. Actividad industrial no compatible con la vivienda.

Artículo 1.3.1.11.- Actividad de industria compatible con vivienda.

1.- Comprende aquellas actividades que utilicen máquinas o aparatos movidos a mano o con motores de potencia inferior a 1 Kw cada uno.

2.- Se admitirá en edificios con viviendas con una limitación de potencia media de 0,03 Kw/m^2 y con una potencia máxima total de 5Kw.

3.- Los datos relativos a la potencia mecánica, a los niveles de ruido y a las emisiones de gases y polvo, permitidos según su situación, son los indicados a continuación:

Potencia media en Kw/m^2	0,03
Potencia total máxima en Kw	5
Nivel sonoro exterior máximo de día en dBA	40
Nivel sonoro exterior máximo de noche en dBA	0
Nivel sonoro interior máximo de día en dBA	55
Nivel sonoro interior máximo de noche en dBA	0
Índice de Ringelmann en funcionamiento	0
Índice de Ringelmann en arranque	0
Emisión máxima de polvo en Kg/hora	1,5

4.- El período de día se considera desde las 8 de la mañana a las 22 horas, y el de noche el complementario.

5.- El índice de ennegrecimiento de Ringelmann se refiere a gases de combustión.

6.- Los niveles sonoros se medirán a una distancia de 1,5 m. de la fachada en el exterior del edificio de uso industrial y en el interior del mismo, estableciéndose un límite máximo de incremento de 3 dBA sobre el nivel del fondo. La medición del nivel máximo en el interior del propio local industrial se efectuará con todas las puertas y ventanas cerradas.

La comprobación de ambos términos se efectuará con la industria totalmente parada y con la misma en pleno funcionamiento de todos sus elementos.

1.3.1.12. artikulua.- Etxebizitzarekin bateragarria ez den industria jarduera.

1.- Jarduera deserosoak biltzen ditu, etxebizitzen ondoan onartzen ez direnak; oro har, industria txikia, ertaina eta handia, bazter utzita osasungaitzak izateagatik beste jarduera batzuen ondoan jarri ezin direnak.

2.- Beren kalifikazio orokorra dela-eta berezko erabilera gisa lanpostu, potentzia eta azalera mugarik gabeko industria erabilera esleituta duten zona pribatuetan soilik onartuko da.

5. atala. Hirugarren sektoreko erabileren edukia.

1.3.1.13.- Definizioa eta motak.

1.- Hirugarren sektoreko jarduerak dira helburutzat jendeari zerbitzuak ematea dutenak.

2.- Bertan, ondorengo motak bereizten dira:

a.- Bulegoak.

b.- Txikizkako merkataritza.

b.1. Merkataritza orokorra.

b.2. Merkataritza azalera handiak.

c.- Ostalaritza.

c.1. Hotelak.

c.2. Kanpinak eta epe laburreko beste ostatu mota batzuk.

i. Kanpinak.

ii. Gazteentzako aterpetxeak eta mendikoak.

iii. Oporretako udalekuak.

iv. Landetxeak eta nekazaritza-turismoko etxeak.

v. Bestelako ostatuak.

c.3. Jatetxeak eta tabernak.

c.4. Jantoki kolektiboak eta prestatutako janarien banaketa.

3.- Erabilera osagarritzat jotzen dira langile eta erabiltzaileentzako aparkalekuak, erabilera nagusiko ekoizpen eta mantentze lanetarako baliabide eta zerbitzuen biltegiak, baita bulegoek ondo funtzionatzeko beharrezkotzat jotzen diren gainontzeko erabilera guztiak ere.

4.- Bulegoak administrazio zerbitzuak, zerbitzu teknikoak, finantza zerbitzuak eta informatikoak eta abar ematea eginkizun nagusi duten jarduerak dira. Administrazio Publikoaren bulegoak multzo honetatik kanpo geratzen dira.

5.- Txikizkako merkataritzaren erabilerak barne hartzen ditu jendearentzako artikulu eta produktuen salmenta eta jendearentzako zerbitzu prestazioa, hala nola ile-apaindegiak, tindategiak eta antzeko beste jarduera batzuk.

"Merkataritzako azalera handiak" autonomia erkidegoko sektoreko legerian hala kontsideratzen direnak dira.

6.- Ostalaritzako erabileraren barruan sartzen dira jendeari aldi baterako ostatu emateko jarduerak, modalitatea zeinahi dela ere.

Alokairuan dauden apartamentu multzoek hotel-apartamentu gisa hartuak izateko dagokien sektoreko legerian ezartzen diren betekizunak betetzen ez dituztenean, apartamentu horiek ezartzeari dagokionez, "egoitza kolektiboa" erabileraren barruan sartuko dira, erabilera horrek berezko dituen batasun funtzional eta antolamenduzkoaren baldintzak betetzen baldin badituzte. Bestela, etxebizitzak izango dira.

6. atala. Gizarte ekipamenduetarako erabileren edukia.

1.3.1.14. artikulua.- Definizioa eta motak.

1.- Gizarte ekipamenduetarako erabileratzat hartzen dira gizarteko kide guztien banakako nahiz taldeko beharrizanak asetzeko helburua duten jarduerak.

2.- Xehetasunezko sailkapenean, honako mota hauek bereizten dira:

a. Irakaskuntza

a.1. Lehen eta bigarren hezkuntza.

a.2. Goi mailako irakaskuntza.

a.3. Etengabeko prestakuntza eta irakaskuntzako beste jarduera batzuk.

b. Aisia eta kultura.

b.1. Liburutegiak, museoak eta bestelako kultura erakundeak.

Artículo 1.3.1.12.- Actividad de industria no compatible con vivienda.

1.- Comprende las actividades incómodas, no admitidas contiguas a viviendas; la pequeña, mediana y gran industria en general, con exclusión de las que su insalubridad no puede ser reducida a límites compatibles con la proximidad de otras actividades.

2.- Se permite sólo en las zonas privadas cuya calificación global les asigne como uso característico el uso industrial, sin limitación de empleo, de potencia y de superficie.

Sección 5ª Contenido de los usos terciarios.

Artículo 1.3.1.13.- Definición y clases.

1.- Se denominan usos terciarios las actividades que tienen por finalidad la prestación de servicios al público.

2.- En él se distinguen las siguientes clases:

a.- Oficinas.

b.- Comercio al por menor.

b.1 Comercio en general.

b.2 Grandes superficies comerciales.

c.- Hostelería.

c.1 Hoteles.

c.2 Camping y otros tipos de hospedaje de corta duración.

i Camping.

ii Albergues juveniles y refugios de montaña.

iii Centros de colonias de vacaciones.

iv Casas rurales y agroturismo.

v Otros alojamientos.

c.3 Restaurantes y bares.

c.4 Comedores colectivos y provisión de comidas preparadas.

3.- Se consideran usos auxiliares los aparcamientos de trabajadores y usuarios, almacenes de servicio y de medios de producción y mantenimiento de uso principal, así como cualquier otro uso preciso para el correcto funcionamiento de las oficinas.

4.- Las oficinas son aquellas actividades que se dirigen como función principal a prestar servicios administrativos, técnicos, financieros, informáticos, etc. Se excluyen las dependencias de la Administración Pública.

5.- El uso de comercio al por menor comprende la venta al público de artículos y productos de todo tipo y la prestación de servicios al público, tales como peluquerías, tintorerías y otras actividades similares.

Las "grandes superficies comerciales" son las consideradas como tales por la legislación sectorial de la comunidad autónoma.

6.- El uso de hostelería comprende las actividades destinadas a proporcionar alojamiento transitorio a las personas en cualquiera de sus modalidades.

Los conjuntos de apartamentos explotados en régimen de alquiler, cuando no cumplan los requisitos establecidos por la legislación sectorial correspondiente para su consideración como aparthoteles, serán, a los efectos de su implantación, usos de "residencias colectivas" si reúnen los requisitos de unidad funcional y organizativa propios de este tipo de usos, o, en caso contrario, viviendas.

Sección 6ª Contenido de los usos de equipamiento comunitario.

Artículo 1.3.1.14.- Definición y clases.

1.- Se denomina uso de equipamiento comunitario las actividades tendentes a satisfacer las distintas necesidades colectivas o personales de todos los miembros de la colectividad.

2.- A los efectos de su pormenorización en él, se distinguen las siguientes clases:

a. Docente

a.1 Enseñanza primaria y secundaria.

a.2 Enseñanza superior.

a.3 Formación permanente y otras actividades de enseñanza.

b. Recreativo y cultural.

b.1 Bibliotecas, museos y otras instituciones culturales.

b.2. Ikuskizunak.
i. Antzokiak eta zinema aretoak.
ii. Dantza aretoak, diskotekak eta antzeko jarduerak.
iii. Azokalekuak eta antzekoak.
iv. Zezen plazak.
v. Beste batzuk.
b.3. Biltzar jauregiak.
b.4. Ikus-entzunezko, arte eta ikuskizun produkzioak.
b.5. Jolasak eta ausazko jokoak.
c. Kirola.
c.1. Estadioak eta kiroldegiak.
i. Estadioak, futbol zelaiak, etab.
ii. Kiroldegiak, pilotalekuak, tenis pistak eta abar.
c.2. Golf zelaiak.
c.3. Zaldiketa eta zalditegiak.
c.4. Beste instalazio batzuk.
d. Osasuna.
d.1. Osasun arloko jarduerak.
i. Ospitaleko jarduerak.
ii. Medikuntza eta odontologiako jarduerak.
iii. Osasun arloko beste jarduera batzuk.
d.2. Albaitaritzako jarduerak.
e. Gizarte zerbitzuak.
i. Ostatua ematen duten gizarte zerbitzuak. Egoitza kolektiboak.
ii. Ostatu ematen ez duten gizarte zerbitzuak.
f. Erlijioa.
g. Erakundeak.
h. Zerbitzu publikoak.
h.1. Defentsa, segurtasuna eta babes zibila.
h.2. Posta eta telekomunikazioak.
h.3. Hiri zerbitzuak.
i. Hornidura azokak.
ii. Hiltegiak.
a. En el suelo no urbanizable se actuará de la siguiente manera:

a.1 En los ámbitos de las operaciones estructurales se formulará un plan especial salvo cuando se ejecute de acuerdo con la legislación sectorial correspondiente o el presente PGOU establezca las determinaciones oportunas que lo hagan innecesario.

a.2 También será necesaria la redacción de un plan especial en las autorizaciones de las actividades contempladas en el artículo 28.5.a) de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo. en las que concurran las circunstancias previstas en el artículo 4.3 del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo.

a.3 Cuando lo considere conveniente la corporación municipal, podrá exigirse la formulación de planes especiales de protección del medio físico.

b. Al margen de lo anterior, se ejecutarán directamente las intervenciones y actuaciones autorizadas en el presente Plan no afectadas ni condicionadas por la previsión de formulación del citado planeamiento especial, aun cuando incidan en terrenos incluidos en el ámbito de éste.

Capítulo 1.3.5. Las intensidades de los usos

Artículo 1.3.5.1.- La edificabilidad física.

1.- Concepto: Se entiende por "edificabilidad física" la superficie que el planeamiento permite construir en un ámbito determinado. Se divide en "bruta" y "urbanística", cuyos conceptos son los definidos en el artículo 35, puntos 1, 2 y 3, de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo.

2.- La edificabilidad física puede regularse por uno de estos dos procedimientos:

a. A través de las ordenanzas de manera expresa y numérica.

b. Mediante la regulación de la forma de la edificación, ya sea por la ordenanza escrita o a través de su diseño gráfico.

3.- Existen dos formas de asignar la edificabilidad física, sea bruta o urbanística:

a. Edificabilidad absoluta: es la superficie fija permitida por el planeamiento en un ámbito determinado. Se expresa en metros cuadrados construibles o de techo (m^2t). Esta forma de asignación podrá ser regulada de forma directa o indirecta.

b. Coeficiente de edificabilidad: superficie construible, permitida por el planeamiento en un ámbito determinado, por cada metro cuadrado de superficie del citado ámbito. Se expresa en metros cuadrados construibles por cada metro cuadrado de suelo (m^2t/m^2s).

4. Modalidades de edificabilidad.

En función del ámbito sobre el que se aplique y/o mida la edificabilidad, en ella se presentan estas dos modalidades.

a. Edificabilidad física neta: es aquélla que se aplica directamente sobre la parcela, excluyendo, en su caso, cualquier terreno que deba pasar al dominio público.

b. Edificabilidad física global: es aquélla que se refiere a un ámbito en que existen terrenos que deben pasar al dominio público en virtud de los deberes que deben asumir los propietarios de una actuación urbanística.

En este caso, cuando la asignación de la edificabilidad se efectúe mediante el señalamiento del coeficiente de edificabilidad, la edificabilidad absoluta se obtendrá a través del producto del coeficiente citado por la superficie total del ámbito mencionado, salvo que en la normativa de la subzona o en la particular de la AOP se especifique otro procedimiento.

5.- Desgloses de las edificabilidades físicas:

a. En función de su desglose, la edificabilidad podrá ser fijada mediante:

a.1. Esparruaren eraikigarritasun osoa.

a.2. Eraikigarritasun partzialak erabileren eta/edo solairuen arabera (sestratik gorako solairuak edo sestra azpikoak).

b. Planeamenduak eraikigarritasuna honako modalitate bi hauetariko baten edo bien bidez esleitu ahalko du.

6.- Eraikigarritasunak adieraztea.

Plangintzak bereizi egingo ditu eraikigarritasun gordina (erabilera publikoak eta erabilera pribatuak edo irabazizkoak) eta hirigintzakoa (erabilera pribatuak soilik). Bereizketa hori ez baldin bada ezartzen, adierazitako eraikigarritasun fisikoa osoki erabilera pribatukoa dela ulertuko da.

1.3.5.2. artikulua.- Eraikigarritasuna neurtzeko modua.

1.- Sestraren gaineko eraikigarritasunaren kalkuluan beheko solairuan, goiko solairuetan eta teilatupeko solairuan eraikitako azalera osoa zenbatuko da, eta eraikuntzaren kanpoaldeko perimetrotik neurtuko da. Azalera hauek izango dira salbuespena:

a. Beheko solairuaren mailan dauden karrerape estaliak eta eraikuntza azpiko sarguneak, betiere erabilera publikokoak badira.

b. Beheko solairuaren mailan dauden karrerape estaliak eta eraikuntza azpiko sarguneak, erabilera pribatukoak direnean, eta irtengune edo sargune irekiak edo hegalkin irekiak, hirigintzako arau hauetako 1.5.1.25. artikuluan ("Fatxadetako irtenguneak eta sarguneak") definituta daudenak, honela konputatuko dira eraikigarritasuna neurtzerakoan: haien forjatu azalera bider 0,5eko koefiziente murriztailea.

c. Etxadiko patioak.

d. Estalpeak edo oinplanoko perimetro osoan eta altuera osoan itxiturarik gabekoak diren sabaipeak.

e. Teilatupeko solairuak, eraikinaren zerbitzurako erabiltzen badira.

f. Betiere, 1,5 metro baino gutxiagoko altuera erabilgarria duten ganbara eta teilatupeko solairuen oinplanoko azalera.

2.- Sestraren azpiko solairuetan eraikigarritasuntzat hartzen da soto eta/edo erdisotoko solairuetan eraikitako sabai edo forjatuaren azalera osoa, goiko solairuetako proiekzio horizontalean dauden eusteko hormen eta arrapalen azalera barne.

1.3.5.3. artikulua.- Biztanle dentsitatea edo etxebizitza dentsitatea.

1. Biztanle dentsitatea deritzo planeamenduak esparru jakin batean eraikitzea baimentzen duen etxebizitza kopuruari.

2. Motak: parametro hori planeamenduan honako hauen bitartez finkatuta egon daiteke:

a. Etxebizitzen kopuru finkoa.

b. Esparruko hektarea bakoitzeko eraiki daitezkeen etxebizitzen kopurua adierazten duen koefizientea.

c. Lurzatiaren gutxieneko azalera etxebizitza bakoitzeko, eta/edo eraikuntza mota.

3. Bizitegitarako zona eta azpizona pribatu guztietan izango da nahitaezkoa biztanle edo etxebizitza dentsitatea adieraztea, urbanizazioaren bidez finkatutako hiri lurzoru gisa sailkatutako "a.1" eta "a.3" zonetan izan ezik.

LAUGARREN TITULUA.- PLANEAMENDUA GAUZATZEKO ARAUBIDE JURIDIKOA

1.4.1. kapitulua.- Lurzoruaren sailkapena

1.4.1.1. artikulua.- Lurzoruaren zatiketa hirigintzako sailkapenaren arabera.

1.- Lurzoruari buruzko legedian ezarritako ondorioetarako eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 11., 13. eta 14. artikuluetan jasotako irizpideekin bat etorriz, udalerriko lurrak mota hauetan sailkatzen dira: hiri lurzorua, lurzoru urbanizagarria (gauzatzen ari dena, sektorizatua eta sektorizatugabea) eta lurzoru urbanizaezina.

2.- Lurzoru mota bakoitzaren mugapena "P2. Lurzoruaren sailkapenaren planoa. Antolamendu xehakatuko esparruak" planoan zehazten da.

a.1 La edificabilidad total del ámbito.

a.2 Las edificabilidades parciales según sus usos y/o sus plantas (bajo rasante o sobre rasante)

b. El planeamiento podrá asignar la edificabilidad por una de estas dos modalidades o por ambas.

6.- Señalamiento de las edificabilidades.

El planeamiento diferenciará la edificabilidad bruta (usos públicos y usos privados o lucrativos) de la urbanística (solo usos privados). Si no se establece tal diferenciación se entenderá que la edificabilidad física señalada corresponde íntegramente a la urbanística.

Artículo 1.3.5.2.- Forma de medir la edificabilidad.

1.- En el cálculo de la edificabilidad sobre rasante se computará la totalidad de la superficie construida en planta baja, plantas de pisos y planta bajo cubierta, medida por el perímetro exterior edificado, excepcionándose las siguientes superficies:

a. La correspondiente a porches cubiertos y penetraciones bajo la edificación a nivel de planta baja, siempre y cuando sean de uso público.

b. Los porches cubiertos y penetraciones bajo la edificación a nivel de planta baja de uso privado, y los cuerpos salientes o entrantes abiertos o vuelos abiertos, definidos en el artículo 1.5.1.25 "Salientes y entrantes en las fachadas" de estas Normas Urbanísticas, computarán, a efectos de medir la edificabilidad, su superficie de forjado multiplicada por el coeficiente reductor 0,5.

c. Los patios de manzana.

d. Los cobertizos o superficies cubiertas por techo, pero libres de cerramiento en la totalidad de su perímetro en planta y en la totalidad de su altura.

e. Las superficies de plantas bajo cubierta que estén destinadas a los usos servidores del edificio en que se sitúen.

f. En cualquier caso, las superficies de plantas de camarotes y de plantas bajo cubierta que tengan una altura útil inferior a 1,5 metros.

2.- En las plantas bajo rasante se considera edificabilidad, a la totalidad de la superficie de forjado o de techo construida en plantas de sótano y/o de semisótano, incluyendo la superficie de los muros de contención y las rampas que se sitúen en la proyección horizontal de las plantas superiores.

Artículo 1.3.5.3.- La densidad de población o residencial.

1. Se entiende por densidad de población el número de viviendas que el planeamiento permite construir en un ámbito determinado.

2. Tipos: Este parámetro puede venir fijado en el planeamiento mediante:

a. Un número de viviendas fijo.

b. Mediante un coeficiente que indique el número de viviendas que pueden construirse por cada hectárea del ámbito indicado.

c. Mediante el señalamiento de una superficie mínima de parcela por vivienda y/o tipo edificatorio.

3. El señalamiento de la densidad de población o residencial será obligatorio en todas las zonas y subzonas privadas residenciales, salvo en las correspondientes a las "a.1" y "a.3" clasificadas como suelo urbano consolidado por la urbanización.

TITULO CUARTO.- RÉGIMEN JURÍDICO DE EJECUCIÓN DEL PLANEAMIENTO

Capítulo 1.4.1.- Clasificación del suelo

Artículo 1.4.1.1.- División del territorio establecida por la clasificación urbanística.

1.- A los efectos establecidos en la legislación del suelo y de acuerdo con los criterios contenidos en los artículos 11, 13 y 14 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo, los terrenos incluidos en el término municipal quedan clasificados en suelo urbano, suelo urbanizable (en ejecución, sectorizado y no sectorizado) y suelo no urbanizable.

2.- La delimitación de cada clase de suelo queda expresada en el plano "P2. Plano de Clasificación del Suelo. Ámbitos de ordenación pormenorizada".

3.- Hiri lurzorua “hiri lurzoru finkatua” eta “hiri lurzoru finkatugabea” kategorietan banatzen da, eta azken hori honela banatzen da: “eraikigarritasunaren gehikuntzagatik finkatu gabe dagoen hiri lurzorua” eta “urbanizazioaren bidez finkatu gabe dagoen hiri lurzorua”. Bi kategoria horiek ere ageri dira aipatutako planoan, baina “hiri lurzoru finkatua” eta “eraikigarritasunaren gehikuntzagatik finkatu gabe dagoen hiri lurzorua” motak modu berean irudikatu dira. Orube edo lurzati bati behin betiko kategoria eman behar zaio eraikuntza obretarako lizentzia eskatu baino lehen.

4.- Lurzoru urbanizagarrian bi mota hauek bereizten dira:

a. Gauzatzen ari den lurzoru urbanizagarria da Arau Subsidiarioek lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu dutena, garapen planeamendua eginda duena eta plan hau idazten hastean gauzatzen hasi dena baina oraindik Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 11. artikuluan eskatzen den urbanizazio maila ez duena.

b. “Lurzoru urbanizagarri sektorizatua” da egiturazko antolamenduari dagozkion zehaztapen guztiak dituena eta plan honek ezarritako epeetan gauzatu behar dena. Planaren bidez edo garapen planeamenduaren bidez antola daiteke xehetasunez.

c. “Lurzoru urbanizagarri sektorizatugabea” lurzoru erreserba soil bat da, eta, oraindik egiturazko antolamenduaren zehaztapenak falta dituenez, hura garatzeko beharrezkoa izango da sektorizazio plana egitea aldez aurretik.

1.4.2. kapitulua.- Eraikigarritasuna esleitzea

1.4.2.1. artikulua.- Eraikigarritasuna eta batez besteko eraikigarritasuna.

1.- Lurralde esparru baten eraikigarritasuna.

Lurralde esparru baten eraikigarritasunaren kontzeptua 2/2006 Legearen 35.4 artikuluan zehazten da. Hauei soilik eragiten die: hiri lurzoruari, lurzoru urbanizagarriari, eta, lurzoru urbanizaezinean, haiek eskuratu ahal izateko gauzatze esparruei atxiki zaizkien sistema orokorrei.

2.- Lurralde esparru baten batez besteko eraikigarritasuna.

Lurralde esparru baten eraikigarritasunaren kontzeptua Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 35.5 artikuluan zehazten da.

1.4.3. kapitulua. Planeamendua gauzatzea

1.4.3.1. artikulua.- Xedapen orokorrak.

1.- Beren arau berezietako “Hirigintza araubide orokorra” atalaren arabera jabetza kentzeko sistema aplikatu behar zaien antolamendu xehakatuko esparruetan, zehaztapen honek planeamendu orokorrari dagozkion arau lotespena eta maila izango ditu, eta, hura aldatzeko, Plan Orokorra aldatzeko espedientea izapidetu beharko da.

2.- Betiere, ezarritako hirigintza aurreikuspenak gauzatzearen ondorioz legezko biztanleak eraitsi behar diren eraikinetatik kaleratu beharko direla aurrez ikusten baldin bada, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezartzen den bezala definitu beharko dira tartean sartuta dauden agenteei dagozkien erantzukizunak, kaleratuek ordezko etxebizitza batera aldatzeko daukaten eskubideari erantzuteko.

1.4.3.2. artikulua.- Planeamendua gauzatzeko jarduketen motak eta haien esparruak. Egikaritze unitateak.

1.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera (Lurzoruari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuak erantsitako zehaztasunekin), honako jarduketa hauek bereizten dira:

a. Jarduketa isolatuak: xede bakar gisa lurzatiak eta orubeak sustatzea dute, eta, kasua bada, eraiki aurretik edo eraiki bitartean urbanizatzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako baldintzekin.

b. Hornidura jarduerak: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 137. artikuluan deskribatutakoak dira, funtsean, eta haien xedea hornidura karga gauzatzea da, aurrez zegoenarekin alderatuta eraikigarritasuna handitu bada.

3.- El suelo urbano se divide en las categorías de “suelo urbano consolidado” y “suelo urbano no consolidado”; este último a su vez se subdivide en “suelo urbano no consolidado por incremento de edificabilidad” y “suelo urbano no consolidado por la urbanización”. Ambas categorías están también dibujadas en el plano mencionado, si bien el “suelo urbano consolidado” y el “suelo urbano no consolidado por incremento de edificabilidad” tienen la misma representación. La categorización definitiva de un solar o parcela se efectuará previamente a la solicitud de la licencia de obras de la edificación.

4.- En el suelo urbanizable se distinguen estos tipos:

a. El suelo urbanizable en ejecución que es el clasificado como suelo apto para urbanizar por las Normas Subsidiarias, que ha realizado su planeamiento de desarrollo y ha iniciado su ejecución en el momento de redactar el presente Plan, pero que aún no tiene el grado de urbanización exigido en el artículo 11 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo.

b. El “suelo urbanizable sectorizado” es aquél que, conteniendo todas las determinaciones propias de la ordenación estructural, debe ser ejecutado en los plazos establecidos al efecto por este Plan. Puede ser ordenado pormenorizadamente por el Plan o mediante el planeamiento de desarrollo.

c. El “suelo urbanizable no sectorizado” es aquél que constituye una mera reserva de suelo y que al no contener aún las determinaciones propias de la ordenación estructural precisarán para su desarrollo de la previa redacción de un plan de sectorización.

Capítulo 1.4.2.- Asignación de la edificabilidad

Artículo 1.4.2.1.- Concepto de edificabilidad y edificabilidad media.

1.- Edificabilidad de un ámbito territorial.

El concepto de edificabilidad de un ámbito territorial viene definido en el artículo 35.4 de la Ley 2/006; afecta exclusivamente al suelo urbano y urbanizable y a aquellos sistemas generales del suelo no urbanizable que han sido adscritos, a efectos de su obtención, a ámbitos de ejecución.

2.- Edificabilidad media de un ámbito territorial.

El concepto de Edificabilidad de un ámbito territorial viene definido en el artículo 35. 5 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo.

Capítulo 1.4.3. Ejecución del Planeamiento

Artículo 1.4.3.1.- Disposiciones de carácter general.

1.- En los AOP en las que en el apartado Régimen Urbanístico General de sus normas particulares correspondientes se establece la aplicación del sistema de expropiación, esta determinación tendrá el rango y vinculación normativa propios del planeamiento general, y su modificación requerirá la tramitación de un expediente de modificación del Plan General.

2.- Siempre que, como consecuencia de la ejecución de las previsiones urbanísticas establecidas, se prevea el desalojo de residentes legales en inmuebles que se hayan de derribar, se deberán definir, en los términos establecidos en la Disposición Adicional Segunda de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo, las responsabilidades correspondientes de los agentes implicados a los efectos de dar respuesta al derecho al realojo de aquéllos.

Artículo 1.4.3.2.- Tipos de actuaciones de ejecución y sus ámbitos. Unidades de ejecución.

1.- De acuerdo con la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo (con las precisiones que introduce el Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la ley de suelo) se distinguen las actuaciones siguientes:

a. Actuaciones aisladas; son aquellas que tienen por exclusivo objeto la promoción de las parcelas y solares, y en su caso, la urbanización previa o simultánea a la edificación en las condiciones previstas en la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo

b. Actuaciones de dotación: son, en principio, las descritas en el artículo 137 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo, que tienen por objeto el levantamiento de la carga dotacional en supuestos de incremento de edificabilidad respecto a la previamente existente.

Hala ere, aipatutako jarduketa horrek eta Lurzoruari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 14. artikuluan aipatzen den izen bereko jarduketak kontzeptuaren eta espazioaren aldetik dituzten desberdintasunak kontuan izanik, EAEko lege hori testu bateratuari egokitzen ez zaion bitartean, bi jarduketen artean (edo are Estatuko jarduketaren eta EAEko jarduketa isolatu edo integratuen artean) edozein desadostasun dagoenean errege dekretuaren arauak aplikatuko dira.

c. Jarduera integratuak: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 138. artikuluan deskribatzen dira, eta halakotzat hartzen dira jarduketa isolatuen edo hornidura jarduketen definizioetan sartzen ez direnak eta sistema orokorren eta tokikoen sareetako hornidura publikoak gauzatzeko jarduketa ere ez direnak. Definizioz, urbanizazioak finkatu gabeko hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarri osoan hedatzen dira, eta haietako bakoitzak gutxienez egikaritze unitate bat edukiko du.

d. Sistema orokorren eta tokikoen sareetako hornidura publikoak gauzatzeko jarduketak: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 139. artikuluaren arabera, honako hauek dira: zuzenean gauzatu daitezkeen eta, lurzorua, ondasunak eta eskubideak ez daudelako jarduketa integratuei atxikita, desjabetze bidez lortu beharra daukaten jarduketak.

Haien xedea da jarduketa integratuei atxikita edo horietan sartuta ez dauden sistema orokorrak gauzatzea, lurzoru mota edozein dela ere. Baita hiri lurzoruan kokatutako tokiko sistemak gauzatzea ere, betiere jarduketa integratuetan sartu ezin badira edo ez badira sartzen hornidura jarduketei eskatzen zaien kargaren barruan.

2.- Gehigarri gisa, esparru berezitzat hartzen dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 53.f) artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako egikaritze esparruei atxikita dauden sistema orokorrak.

3.- Egikaritze unitateak jarduketa integratuen eta, kasua bada, hornidura jarduketen esparruak zatitzearen emaitza dira. Zatiketa horren xedea da lagatzeko, berdinbanatzeko eta esparru osoa urbanizatzeko betebeharrak modu bateratuan nola beteko diren arautzea. Haien norainokoa, edukia eta mugapena Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 144. eta 146. artikuluetan araututa daude.

1.4.3.3. artikulua.- Hiri lurzoru finkatua edo jarduketa isolatuak gauzatzeko araubidea.

1.- Orubetzat hartzen diren lurzoru mota honetako lursailetan, zuzenean eraiki ahalko da, eta, kasua bada, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 136. artikuluan ezarritako lurzatikatze prozesuaren pean jarri ahalko dira.

2.- Orubetzat hartzen ez diren lursailetan, eraiki aurretik, urbanizazio obra osagarrien proiektua onartu beharko da. Gainera, finkak normalizatzeko proiektua onartzeko eta lurzatikatzeko baimena eta obra baimena emateko, kasuan kasukoa, aldez aurretik edo aldi berean nahitaez eta dohainik laga beharko dira jabari eta erabilera publikoko espazio gisa kalifikatuta dauden lurrak.

3.- Bi kasuetan, finkak normalizatzeko proiektua eskatzen denean, geratu egingo dira urbanizazioaren obra osagarriak eta planeamenduak jabari eta erabilera publikoko espazio gisa kalifikatutako lurren nahitaezko eta doako lagapena, proiektua onartu arte.

1.4.3.4. artikulua.- Eraikigarritasuna handitzeagatik finkatu gabe dagoen hiri lurzorua edo hornidura jarduketen hiri lurzorua gauzatzeko araubidea.

1.- Hiri lurzoruan, "Planeamendua gauzatzeko jarduketen motak eta haien eremuak. Egikaritze unitateak" izenburuko 1.4.3.2. artikuluko 1.b) puntuan adierazitakoaren arabera, eraiki aurretik hornidura jarduketa eratu beharra duten lurretan, Lurzoruari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluan ezarritako legezko betebeharrak egongo dira. Horniduren zenbatekoak kalkulatzeko, errege dekretu beraren 14. artikuluko irizpideak erabiliko dira; lehendik dauden toki

No obstante, dadas las diferencias conceptual y espacial existentes entre la referida actuación con su homónima del artículo 14 del Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la ley de suelo, en tanto no se adapte la Ley vasca mencionada a este en los casos en los que exista cualquier tipo de discrepancia entre ambas actuaciones (o, incluso, entre la estatal y las aisladas o integradas vascas) se aplicarán las normas del referido Real Decreto.

c. Actuaciones integradas: descritas en el artículo 138 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo, tienen tal consideración aquellas que no tienen cabida en las definiciones de actuaciones aisladas o de dotación, ni constituyen actuaciones de ejecución de dotaciones públicas de las redes de sistemas generales y locales. Por definición se despliegan en suelo urbano no consolidado por la urbanización y en todo el suelo urbanizable y comprenderán cada una de ellas al menos una unidad de ejecución.

d. Actuaciones de ejecución de dotaciones públicas de las redes de sistemas generales y locales: según el artículo 139 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo son aquéllas que puedan ejecutarse directamente y que se deban obtener por expropiación por no estar el suelo, bienes y derechos incluidos o adscritas a actuaciones integradas.

Tienen por objeto la ejecución de sistemas generales de cualquier clase de suelo que no han sido adscritos ni incluidos en actuaciones integradas. Así como la de sistemas locales situados en suelo urbano siempre que no sea factible su inclusión en actuaciones integradas o no se inscriban dentro de la carga exigible a las actuaciones de dotación.

2.- Adicionalmente se consideran ámbitos especiales aquellos sistemas generales adscritos a ámbitos de ejecución a los efectos previstos en el artículo 53.f) de la 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

3.- Las unidades de ejecución son los ámbitos en que quedan divididos los de las actuaciones integradas y, en su caso, de dotación, con el objeto de regular el cumplimiento conjunto de los deberes de cesión, equidistribución y urbanización de toda su superficie. Su alcance; contenido y delimitación están regulados en los artículos 144 y 146 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo.

Artículo 1.4.3.3.- Régimen de ejecución del suelo urbano consolidado o de las actuaciones aisladas.

1.- En los terrenos de este suelo que tengan la consideración de solar se podrá edificar directamente, y, en su caso, someterse al proceso de reparcelación previsto en el artículo 136 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo.

2.- En los terrenos que no tengan la consideración de solar previamente a la edificación, requerirán la aprobación de un proyecto de obras complementarias de urbanización. Además, la aprobación del proyecto de normalización de fincas, y la concesión de la licencia de parcelación y la de obras, según cada caso, se condicionarán a la previa o simultánea cesión obligatoria y gratuita de los terrenos calificados como espacios de dominio y uso público.

3.- En ambos casos, cuando sea exigible un proyecto de normalización de fincas se paralizarán las obras de complemento de la urbanización y la cesión obligatoria y gratuita de los terrenos calificados como espacios de dominio y uso público por el planeamiento hasta la aprobación de aquél.

Artículo 1.4.3.4.- Régimen de ejecución del suelo urbano no consolidado por incremento de edificabilidad o de actuaciones de dotación.

1.- En los terrenos del suelo urbano que, en virtud de lo señalado en el punto 1.b) del artículo 1.4.3.2. "Tipos de actuaciones de ejecución y sus ámbitos. Unidades de ejecución" deban constituir una actuación de dotación, como paso previo a la edificación, deberán cumplir los deberes legales establecidos en el artículo 16 del Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la ley de suelo. Las cuantías de las dotaciones se calcularán siguiendo los criterios del artículo 14 del citado Real Decreto;

horniduren proportzioari eusteko, berriz, Udalak nahitaezko eta doako lagapenaren bidez eskuratutako hornidurak bakarrik hartuko dira kontuan.

2.- Autonomia erkidegoko legediak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aipatutako errege dekretuari egokitzen ez dion bitartean, dekretu horren bigarren xedapen iragankorrean ezarritako arauak aplikatuko dira.

3.- Hornidura karga libratu ostean, urbanizazio bidez finkatutako hiri lurzoruan jarduten den modu berean jardungo da.

1.4.3.5. artikulua.- Urbanizazioaren bidez finkatu gabe dagoen hiri lurzorua (jarduketa integratuena) eta lurzoru urbanizagarria gauzatzeko araubidea.

Antolamendu xehakatuko esparruetan ezarritako hirigintza antolamenduko aurreikuspenak gauzatzeko, jarduketa integratu bakoitzaren urbanizazio jarduketaren programa egin, izapidetu eta onartu beharko da (dagokion hitzarmena sinatuta eta, kasua bada, hura esleituta), baita lurzatikatze proiektua eta, hala behar denean, urbanizaziokoa ere.

1.4.3.6. artikulua.- Sistema orokorren eta tokikoen sareetako hornidura publikoak gauzatzeko jarduketen esparruetan aplikatzekoa den gauzatze araubidea.

Jarduketa horietan desjabetze bidez jardungo da beti eta beren arau berezian ezarritako epea errespetatuko da. Epe hori ezingo da izan Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 186. artikuluan xedatutakoa baino luzeagoa.

1.4.4. kapitulua. Urbanizazioa gauzatzea

1.4.4.1. artikulua.- Urbanizazio obrak gauzatzeko eskatzen diren proiektu motak, horiek bete behar dituzten baldintzak eta obrak hasteko aukera.

1.- Urbanizazio obrak, kasu bakoitzean behar denaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 194. eta 195. artikuluetan zehaztutako proiektuen bidez gauzatuko dira.

2.- Horri dagokionez, antolamendu xehakatuko esparru bakoitzean hirigintza arau hauetako 2. liburuan jasotako arau berezian ezarritako baldintzak aplikatuko dira, edo, garapen planeamendua egin bada, hor ezartzen diren baldintzak.

3.- Egikaritze unitate bateko urbanizazio proiektua behin betiko onartu ostean, urbanizazio obrak hasi ahalko dira, baita berriro lurzatikatzeko proiektuak behin betiko onartu ez badira ere, Udalak aldez aurretik baimena ematen baldin badu, eta baimen hori eragina jasotzen duten hirugarren pertsonen eskubideei kalterik egin gabe emango da.

1.4.4.2. artikulua.- Urbanizazio obretan garatzen diren proiektuen ondorioz antolamendua egokitzeko aukeren mugak.

1.- Urbanizazio proiektuetan, obrak gauzatu bitartean, lurzoruaren eta zorupearen ezaugarriek eskatzen dituzten xehetasunezko egokitzapenak egin ahalko dira. Baina egokitzapen horrek onibarren antolamendua aldarazten badu, gauzatzen ari den planaren aldaketa onartu beharko da aldez aurretik edo aldi berean.

2.- Urbanizazio obrak garatzen dituzten proiektuek tokiko sistema eta sistema orokorretako elementuen konfigurazioa, lerrokadurak eta sestrak egokitu ahalko dituzte, eta beharrezkoa bada, planeamenduak sistema horietarako ezartzen dituen azpizona xehakatuen gainean eragina izan dezakete.

Alde horretatik, berariaz ulertuko da planeamenduan zehaztutako zerbitzu azpiegituretako sareen trazaduren eta ezaugarrien definizioa adierazgarria dela; beraz, dagozkien obra proiektuen bitartez zehaztuko dira behin betiko.

1.4.4.3. artikulua.- Urbanizazio obren gutxieneko baldintza teknikoak.

1.- Urbanizazio proiektuetan aurreikusitako obren gutxieneko baldintza teknikoak sektoreko araudian eta hirigintza antolamen-

si bien, a los efectos de mantener la proporción de las dotaciones locales preexistentes solo se tendrán en cuenta las que hayan sido obtenidas por el ayuntamiento mediante cesión obligatoria y gratuita.

2.- En tanto la legislación autonómica no adapte Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo al mencionado Real Decreto, se aplicarán las reglas fijadas en la disposición transitoria segunda de este.

3.- Una vez liberada la carga dotacional, se actuará de igual modo que en el suelo urbano consolidado por la urbanización.

Artículo 1.4.3.5.- Régimen de ejecución del suelo urbano no consolidado por la urbanización (de actuaciones integradas) y del urbanizable.

La ejecución de las previsiones de la ordenación urbanística establecidas en las AOP requerirá la redacción, tramitación y aprobación del programa de actuación urbanizadora de cada actuación integrada (con la suscripción del correspondiente convenio, y, en su caso, la adjudicación de aquél) y de los proyectos de reparcelación, en su caso, y de urbanización.

Artículo 1.4.3.6.- Régimen de ejecución aplicable en los ámbitos de las actuaciones de ejecución de dotaciones públicas de las redes de sistemas generales y locales.

En estas actuaciones se actuará siempre por expropiación, y en el plazo establecido en su norma particular, que nunca podrán ser superior al indicado en el artículo 186 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Capítulo 1.4.4. Ejecución de la urbanización

Artículo 1.4.4.1.- Tipos de proyectos exigidos para la ejecución de obras de urbanización, condiciones que deberán cumplir y posibilidad de inicio de las obras.

1.- Las obras de urbanización se ejecutarán, según corresponda en cada caso, a través de los proyectos definidos en los artículos 194 y 195 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

2.- A este respecto, en cada AOP se aplicarán las condiciones establecidas en su norma particular contenida en el Libro 2 de estas Normas Urbanísticas o, en el caso de formulación de planeamiento de desarrollo, las que éste establezca.

3.- Una vez aprobado definitivamente un proyecto de urbanización de una unidad de ejecución, podrán iniciarse las obras de urbanización, aun cuando no se hubieran aprobado definitivamente los proyectos reparcelatorios correspondientes, previa autorización municipal, que se concederá sin perjuicio del derecho de terceros afectados.

Artículo 1.4.4.2.- Límites de la posibilidad de adaptación de la ordenación por los proyectos que desarrollen obras de urbanización.

1.- Los proyectos de urbanización podrán efectuar las adaptaciones de detalle exigidas por las características del suelo y subsuelo en la ejecución material de las obras. No obstante, cuando esa adaptación suponga alteración de la ordenación de los predios afectados, deberá aprobarse previa o simultáneamente la correspondiente modificación del plan que ejecutan.

2.- Los proyectos que desarrollen obras de urbanización podrán reajustar la configuración, alineaciones y rasantes, de los elementos de los sistemas locales y generales, afectando, si fuese necesario a las subzonas pormenorizadas establecidas por el planeamiento para dichos sistemas.

En este sentido, se entenderá expresamente que la definición de trazados y características de las redes de infraestructuras de servicios definidas en el planeamiento tiene un carácter indicativo, por lo que la definitiva concreción de los mismos se producirá en todo caso a través de los proyectos de obra correspondientes.

Artículo 1.4.4.3.- Condiciones técnicas mínimas de las obras de urbanización.

1.- Las condiciones técnicas mínimas de las obras previstas en los proyectos de urbanización, serán las especificadas por la normativa

duaren osagarri diren udal ordenantzetan zehazten direnak izango dira.

2. Azken horietan zehaztapenik ez badago, Udalak kasu bakoitzean definitu ahalko ditu aplikatu beharreko baldintzak, udal sustapeneko obretan erabili ohi diren kalitate estandarren arabera. Horretarako, obren sustatzaileak proiektua idazten hasi aurretik eskatu beharko ditu horri buruzko irizpide egokiak.

1.4.4.4. artikulua.- Udalerrikoak ez diren titularrek urbanizazio proiektuak gauzatzea.

1.- Behin betiko onartu den urbanizazio proiektu batean aurreikusten diren obrak gauzatzeko ez da beharrezkoa izango aldez aurretik eskaera egitea eta Udalaren baimena lortzea. Nolanahi ere, sustatzaile edo titularrak Udalari obra horien hasiera eta amaiera jakinarazi beharko dizkio, baita obretako etapa guztienak ere, egotekotan.

2.- Horretarako, Udalak obren exekuzioaz geroago egingo duen kontrolean, hirigintza antolamenduaren osagarri diren udal ordenantzetan ezarritako dokumentu eta prozedurazko baldintzak bete beharko dira.

1.4.5. kapitulua. Eraikitzeko ahalmena gauzatzea

1.4.5.1. artikulua.- Hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian eraikitzeko ahalmena gauzatzea.

1.- Urbanizazioaren eta onura eta zamen banaketaren baldintzak betetzea.

a. Orubetzat hartzen ez diren lurretan, lurzatikatze baimena eta obra baimena emateko, kasuan kasukoa, beharrezkoa izango da aldez aurretik edo aldi berean beharrezkoak diren urbanizazio obrak gauzatzea, eta Udalak, horretarako, komenigarritzat jotzen duen moduan eskatu ahalko ditu horren bermeak.

b. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arautegia onartzen ez den bitartean, egikaritze unitateen barruko lurretan eraikitzeko baimena eskatu ahalko da (orube bihurtu aurretik), betiere honako betekizun hauek betetzen badira:

i. Administrazio bidean lurzatikatze proiektua onartzeko egintzak sendotasuna lortzea, bata edo bestea Plan Orokorraren onurak eta kargak banatzeko beharrezkoak izango balira.

ii. Urbanizazio obren gauzatze egoera dela eta, Administrazioak aurreikustea eraikuntza bukatzerakoan lurzatiak orube izateko beharrezkoak diren zerbitzu guztiak edukiko dituela.

iii. Baimena eskatzeko idazkian eraikuntza urbanizazio obra bukatuta egon arte ez erabiltzeko eta baldintza hori eraikin osoarentzat edo zati batentzat burutzen diren jabetza edo erabilera eskubidearen lagapenetan ezartzeko konpromisoa hartzea.

2.- Eraikinak ezin izango dira okupatu eraikin horietan eragina duen urbanizazioa guztiz amaitu eta ur hornidura, argindar hornidura eta estolderia sareak erabiltzeko moduan egon arte.

3.- Eraikitzearekin batera urbanizatzeko betebeharra ez bada betetzen, baimena iraungiko da, kalte ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, eraikitakoa erabiltzeko aukerarik gabe, eta ezertan eragotzi gabe hirugarren eskuratzaileek kalte eta galeren ordaina jasotzeko izan dezaketen eskubidea. Gainera, artikulu honetako 1.b) idatz zatian aipatzen den fidantza galduko da.

4.- Baimena eskatzeko epeak, eraikuntzaren hasiera eta bukaera.

a. Eraikitzeko baimenak plan honetan ezarritako gehieneko epean eskatu beharko dira, edo, halakorik ezean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 189. artikuluan ezarritako epean.

b. Halaber, hirigintza antolamenduaren osagarri diren udal ordenantzetan aldez aurretik definituta ez baldin badaude, eraikitzeko baimena emateko egintzan, proiektatutako eraikuntza obrak hasteko epea, gehieneko etenaldia eta bukatzeko epea ezarriko dira.

sectorial y las Ordenanzas municipales complementarias de la ordenación urbanística.

2. En defecto de especificaciones en estas últimas, la corporación municipal podrá definir en cada caso las condiciones aplicables, de acuerdo con los estándares de calidad utilizados de manera habitual en las obras de promoción municipal. A tal efecto, el promotor de las obras deberá solicitar, con anterioridad al inicio de los trabajos de redacción del proyecto, las directrices oportunas al respecto.

Artículo 1.4.4.4.- Ejecución de proyectos de urbanización por titulares no municipales.

1.- La ejecución de las obras previstas en un proyecto de urbanización definitivamente aprobado no exigirá la previa solicitud y obtención de licencia municipal. Sin embargo, en todo caso, el promotor o titular correspondiente deberá notificar al Ayuntamiento el inicio y finalización de dichas obras, así como los de sus diferentes etapas si las hubiere.

2.- A tal efecto y, en el posterior control municipal de la ejecución de las obras, se deberán cumplimentar los requisitos documentales y de procedimiento que las Ordenanzas municipales complementarias de al ordenación urbanística establezcan.

Capítulo 1.4.5. Ejercicio de la facultad de edificar

Artículo 1.4.5.1.- Ejercicio de la facultad de edificar en suelo urbano y urbanizable.

1.- Cumplimiento de los requisitos de urbanización y distribución de beneficios y cargas.

a. En los terrenos que no tengan la consideración de solar la concesión de la licencia de parcelación y la de obras, según cada caso, se condicionará a la previa o simultánea ejecución de las obras de urbanización necesarias, pudiendo el Ayuntamiento, a estos efectos, exigir la consignación de las garantías que estime convenientes.

b. En tanto no se apruebe el reglamento de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo, en los terrenos incluidos en unidades de ejecución podrá solicitarse licencia de edificación (antes de adquieran la condición de solar) si concurren los requisitos siguientes:

i. Que hubiese ganado firmeza, en vía administrativa, el acto de aprobación del proyecto de reparcelación, si uno u otro fuesen necesarios para la distribución de beneficios y cargas del Plan General.

ii. Que por el estado de realización de las obras de urbanización la Administración considere previsible que a la terminación de la edificación la parcela de que se trate contará con todos los servicios necesarios para tener la condición de solar.

iii. Que en el escrito de solicitud de licencia se comprometa a no utilizar la construcción hasta tanto no esté concluida la obra de urbanización y a establecer tal condición en las cesiones de derecho de propiedad o de uso que se lleven a efecto para todo o parte del edificio.

2.- No se permitirá la ocupación de los edificios, hasta que no esté realizada totalmente la urbanización que afecte a dichos edificios y estén en condiciones de funcionamiento los suministros de agua y energía eléctrica y las redes de alcantarillado.

3.- El incumplimiento del deber de urbanización simultáneo a la edificación comportará la caducidad de la licencia, sin derecho a indemnización, impidiéndose el uso de lo edificado, sin perjuicio del derecho de los terceros adquirientes al resarcimiento de los daños y perjuicios que se les hubieren irrogado. Asimismo, comportará la pérdida de la fianza a que se refiere el apartado 1.b de este artículo.

4.- Plazos para la solicitud de licencia, inicio y final de la edificación.

a. Las licencias de edificación deberán solicitarse en el plazo máximo establecido en este Plan o, en su defecto, en el artículo189 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo.

b. A su vez, y siempre que no estén previamente definidos en las Ordenanzas municipales complementarias de la ordenación urbanística, en el acto de otorgamiento de la licencia de edificación, se fijarán los plazos de inicio, interrupción máxima y finalización de las obras de edificación proyectadas.

Epe horiek ezarriko dira, era berean, eraikitzeaz batera urbanizazio obrak egin behar direnean eraikuntzaren osagarri gisa.

1.4.5.2. artikulua.- Lurzoru urbanizaezinean eraikitzeko eta baimendutako jarduerak ezartzeko ahalmena gauzatzea.

1.- Lurzoru urbanizaezinean eraikitzeko eta jarduerak ezartzeko ahalmena gauzatzeko orduan, kontuan hartuko dira honako arau hauek, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28. artikulua, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurrien gaineko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 4.3 artikulua, eta, behar denean, sektoreko araudi aplikagarria.

2.- Beharrezkoa izango da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan ezarritako hirigintza baimena izatea, baina, horretaz gain, kasuaren arabera, arloko legediarekin bat etorriz eska daitezkeen baimenak edo onarpenak ere lortu beharko dira.

3.- Esparru batzuetan plan honek berariaz ezartzen du plan berezi bat egin beharra. Esparru horietan, plan berezia egiten ez den bitartean, lehendik dauden nekazaritzako erabilerei lotutako eraikuntzak soilik onartuko dira.

4.- Plan honetan eraikitzeko baldintza gisa lur azalera jakin baten lotura eskatzen den kasu guztietan, obra baimena emateko beharrezkoa izango da lotura hori frogatu eta bermatzen duen erregistroko ziurtagiria aurkeztea.

1.4.6. kapitulua. Lehendik badiren eraikuntza eta erabileren araubidea

1.4.6.1. artikulua.- Lehendik badiren eraikuntzen araubidea definitzen duten irizpide orokorrak.

1.- Lehendik dauden eraikuntzei buruz plan honetan dagoen araubideak kontuan hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 101. artikuluan ezarritakoa.

2.- Kapitulu honetan modu orokorrean ezartzen da hiri lurzoruan, lurzoru urbanizagarrian eta lurzoru urbanizaezinean katalogatu gabe dauden eta planeamenduarekin bat ez datozen eraikinen araubidea. Nolanahi ere, hori ez da eragozpen izango antolamendu xehakatuko esparruen arau berezietan egoera bereziak arautzeko.

3.- Bestalde, historia eta arkitektura ondarea babestu eta zaintzeko araubidea eta, ondorioz, katalogoan jasota dauden eraikinak eta gainontzeko elementuak hirigintzako arau hauetako 3. liburuan ("Historia eta arkitektura ondarea eta naturguneak babesteko arauak")·daude jasota.

1.4.6.2. artikulua.- Hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian antolamenduz kanpo dauden eraikin, eraikuntza eta instalazioak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 101. artikuluan adierazitakoaren arabera, antolamendutik kanpokotzat hartuko dira eraikinak, eraikuntzak eta instalazioak, baldin eta planeamenduan epe jakin batean kenduko direla aurreikusi bada, sistema orokorretako eta toki sistemetako jarduketa isolatu, integratu edo egikaritzeko baten eremuaren barruan sartuta geratu direlako. Plan honekin bat ez datozen elementuak P5 "Eraikitzeko baldintzak" planoan identifikatuta daude.

2.- Eraikinak, eraikuntzak edo instalazioak antolamendutik kanpokotzat kalifikatuz gero, ukatu egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 101. artikuluko 5. eta 6. puntuetan onartutakoak baino eraikuntzako esku hartze gehiago egiteko baimena, ondoko bi puntuetan adierazitako salbuespenekin.

3.- Eraikin, eraikuntza edo instalazio batean zatiren bat edo eraikin gorputzen bat ohiko baliabide teknikoen bitartez antolamendutik kanpoko kalifikazioa duen zatitik bereiz badaiteke, antolamenduz kanpoko araubidetik salbuetsita geratuko da, eta dagokionari lotuta, proposatutako antolamenduarekin bat etorriz.

Los citados plazos también se establecerán en relación con las obras de urbanización que, en su caso, deban ejecutarse complementaria y simultáneamente a la edificación.

Artículo 1.4.5.2.- Ejercicio de la facultad de edificación e implantación de actividades autorizadas en el suelo no urbanizable.

1.- El ejercicio de la facultad de edificación e implantación de actividades en el suelo no urbanizable se acomodará a lo dispuesto en las presentes Normas, en el artículo 28 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo, el 4.3 del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo, y, en su caso, en cuanta normativa sectorial sea de aplicación

2.- La autorización urbanística precisa establecida en el artículo 28.5.a) de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo, no exime de la necesidad, según cada caso, de obtener cuantas autorizaciones o aprobaciones sean exigibles, de acuerdo con la diferente legislación sectorial.

3.- En los ámbitos en los que se establece expresamente en el presente Plan la obligatoriedad de la formulación de un plan especial, en tanto que la misma no se efectúe, se permitirá únicamente las construcciones vinculadas a los usos rurales existentes.

4.- En todos aquellos casos en los que en el presente Plan se exige la vinculación de una determinada superficie de terreno como condición para la edificación, la concesión de la licencia de obras se condicionará a la presentación de certificación registral acreditativa y garantizadora de la indicada vinculación.

Capitulo 1.4.6. Régimen de la edificación y de los usos preexistentes

Artículo 1.4.6.1.- Criterios generales que definen el régimen de la edificación existente.

1.- El régimen de la edificación existente regulado en este Plan, tiene en cuenta lo establecido por la Ley 2/2.006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, en su artículo 101.

2.- En este Capítulo se establece con carácter general el régimen de los edificios no catalogados existentes en suelo urbano, urbanizable y no urbanizable, disconformes con el planeamiento; sin perjuicio de que la norma particular de las diversas AOP puedan regular situaciones particulares.

3.- De otra parte, el régimen de protección y conservación del Patrimonio Histórico-Arquitectónico y en consecuencia de los edificios y demás elementos catalogados se contiene en el Libro 3. "Normas de Protección del Patrimonio Histórico-Arquitectónico y de los Espacios Naturales" de estas Normas Urbanísticas.

Artículo 1.4.6.2.- Edificios, construcciones e instalaciones fuera de ordenación en suelo urbano y urbanizable.

1.- Según lo indicado en el artículo 101 de la Ley 2/2.006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, tienen la consideración de fuera de ordenación los edificios, construcciones e instalaciones cuya desaparición ha sido prevista por el planeamiento en un plazo determinado, por quedar incluidos dentro del ámbito de alguna de las actuaciones aisladas, integradas o de ejecución de Sistemas Generales y Locales. Los elementos disconformes con este Plan están identificados en el plano P5 "Condiciones de la edificación".

2.- La calificación de un edificio, una construcción o una instalación como fuera de ordenación conlleva la denegación de licencia para realizar intervenciones constructivas que excedan de las permitidas en el artículo 101, puntos 5 y 6, de la Ley 2/2.006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, con las excepciones señaladas en los dos puntos siguientes.

3.- Cuando en un edificio, construcción o edificación exista alguna parte del mismo o cuerpo edificatorio que sea separable de la parte calificada como fuera de ordenación por medios técnicos normales, quedará exenta del régimen de fuera de ordenación y sujeta al que le corresponda, de acuerdo con la ordenación propuesta.

4.- Proiektatzen ari den sistema orokor baten eremuan egoteagatik antolamendutik kanpoko kalifikazioa duten eraikinek, eraikuntzek edo instalazioek antolamendutik kanpoko kalifikazioa galduko dute baldin eta proiektua gauzatutakoan ez badaude jabari publikoa eratzeko desjabetu diren lurren barruan, eta dagokien egoerara igaroko dira, proposatutako antolamenduaren arabera.

1.4.6.3. artikulua.- Hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian planeamenduarekin bat ez datozen eraikin, eraikuntza edo instalazioak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 101.3.b artikuluarekin bat etorriz, planeamenduarekin bat ez datozen eraikin, eraikuntza eta instalazio gisa definitzen dira, antolamendutik kanpokoak alde batera utzita, eragiten dien antolamenduaren zehaztapenak betetzen ez dituztenak.

2.- Bi maila bereizten dira horietan:

a. A maila: antolamendu xehakatuak zehaztutako fatxadaren gehieneko edo nahitaezko lerroetatik irteten direnak edo sestraren gainean gehienez onartzen den bi solairuko kopurua gainditzen dutenak.

b. B maila: antolamendu xehakatuaren zehaztapenen bat betetzen ez badute ere antolamendutik kanpokoak ez direnak, ezta antolamenduarekin bat ez datozen A mailakoak ere.

3.- Planeamenduarekin bat ez datozen A mailako eraikin, eraikuntza eta instalazioak zaharberritu, kontserbatu eta apaintzeko, finkatu eta eraberritzeko esku hartzeak onartuko dira, betiere eraikina handitu gabe, eta obra horien kostuak eraikina ordezteko kostuaren erdia gainditzen ez baldin badu.

Halaber, horietako zatiren bat edo eraikin gorputzen bat ohiko baliabide teknikoen bitartez antolamendutik kanpoko kalifikazioa duen zatitik bereiz badaiteke eta gehieneko lerrokaduratik irteten bada, araubide honetatik salbuetsita geratuko da, eta dagokionari lotuta, proposatutako antolamenduarekin bat etorriz.

4.- Antolamendu xehakatuko esparru bakoitzeko arau berezian ezarriko dira planeamenduarekin bat ez datozen B mailako eraikin, eraikuntza eta instalazioei aplikatu beharreko baldintzak.

Bestela, handitzea ez beste eraikuntzako esku hartze oro egin daitekeela ulertuko da, berreraikuntza izan ezik, eta kasu horretan, antolamendu xehakatu berrira egokitu beharko dira. Gainera, handitzeko obrak ere baimendu ahalko dira kalifikazio xehakatuak lurzatiari esleitutako eraikigarritasuna amaitu arte, betiere eskatzen diren gainerako zehaztapenak betetzen badira eta ez badira okertzen kalifikazio xehakatuarekin ez egokitzeko baldintzak.

1.4.6.4. artikulua.- Planeamenduarekin bat datozen eraikin, eraikuntza eta instalazioak.

Planeamenduarekin bat datozen eraikin, eraikuntza eta instalazioetan, eraikuntza jarduerak hirigintza antolamenduak ezartzen duenari egokituko zaizkio.

1.4.6.5. artikulua.- Antolamendu xehakatuko esparruetan lehendik dauden eta antolamendu xehakatua egiteko daukaten eraikin, eraikuntza eta instalazioak.

1.- Antolamendu xehakatuko esparru bat, eremu edo sektore bat garatzeko plan honek eskatzen duen planeamendua onartzen ez den bitartean, lehendik dauden eraikin, eraikuntza eta instalazioetan soil-soilik Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 101. artikuluko 5. eta 6. puntuetan adierazitako obrak egin ahalko dira.

2.- Planeamendu xehakatua onartu ondoren, dagokien araubidearen pean geratuko dira, proposatutako antolamendu xehakatura egokitzen diren kontuan hartuta.

1.4.6.6. artikulua.- Hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian lehendik dauden erabilerak.

1.- Plan honek debekatzen dituen erabilerak edota ingurumenaren, segurtasunaren eta osasunaren babesari buruz indarrean dauden xedapenekin bateraezinak diren erabilerak dituzten eraikin, eraikuntza

4.- Los edificios, construcciones o instalaciones que estén calificados como fuera de ordenación por estar situados en la zona de un Sistema General en proyecto, perderán su calificación de fuera de ordenación, si una vez realizado aquél, no se encuentran incluidos en los terrenos expropiados para constituir el dominio público, pasando a la situación que le corresponda, de acuerdo con la ordenación propuesta.

Artículo 1.4.6.3.- Edificios, construcciones o instalaciones disconformes con el planeamiento en suelo urbano y en suelo urbanizable.

1.- De acuerdo con el artículo 101.3.b de la Ley 2/2.006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, se definen como edificios, construcciones o instalaciones calificados disconformes con el planeamiento aquéllos que, excluidos los fuera de ordenación, incumplen las determinaciones de la ordenación que les afecta.

2.- Se distinguen en ellos dos grados:

a. Grado A: aquellos que sobresalen de las líneas máximas u obligatorias de fachada definidas por la ordenación pormenorizada o que exceden de dos plantas del número máximo permitido sobre rasante.

b. Grado B: los que incumpliendo alguna determinación de la ordenación pormenorizada no tienen la consideración de fuera de ordenación ni disconformes con la ordenación grado A.

3.- En los edificios, construcciones e instalaciones disconformes con el planeamiento, grado A, se permite realizar intervenciones constructivas de restauración, conservación y ornato, consolidación y reforma sin ampliación, siempre que no supongan un coste superior al cincuenta por ciento del coste de reposición del edificio.

Asimismo, cuando exista en ellos alguna parte o cuerpo que sea separable, por medios técnicos normales, de la que sobresalga de la alineación máxima, quedará exenta de este régimen y sujeta al que le corresponda, de acuerdo con la ordenación propuesta.

4.- La Norma particular de cada AOP establecerá las condiciones aplicables a los edificios, construcciones e instalaciones disconformes con el planeamiento, grado B.

En su defecto, se entenderá que podrá ser objeto de todo tipo de intervenciones constructivas sin ampliación, excluidas las de reedificación en cuyo caso deberán ajustarse a la nueva ordenación pormenorizada. Además, también podrá autorizarse obras de ampliación hasta agotar la edificabilidad asignada a la parcela por la calificación pormenorizada, siempre que cumpla el resto de determinaciones exigibles y no se agraven sus condiciones de inadecuación en relación con la calificación pormenorizada.

Artículo 1.4.6.4.- Edificios, construcciones e instalaciones conformes con el planeamiento.

En los edificios, construcciones e instalaciones conformes con el planeamiento las actuaciones edificatorias se adaptarán a lo que establezca la ordenación urbanística.

Artículo 1.4.6.5.- Edificios, construcciones e instalaciones preexistentes en AOP pendientes de ordenación pormenorizada.

1.- En tanto no se apruebe el planeamiento de desarrollo de un AOP, área o sector, exigido en este Plan, en los edificios, construcciones e instalaciones preexistentes solo podrán efectuarse las obras señaladas en el artículo 101, puntos 5 y 6, de la Ley 2/2.006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

2.- Una vez aprobado el planeamiento pormenorizado, quedarán sometidos al régimen que les corresponda según su adecuación a la ordenación pormenorizada propuesta.

Artículo 1.4.6.6.- Usos existentes en suelo urbano y urbanizable.

1.- En los edificios, construcciones e instalaciones que alberguen usos prohibidos por este Plan o incompatibles con las disposiciones vigentes en materia de protección del medio ambiente, seguridad y

eta instalazioetan, betiere gabeziak ezin badira konpondu neurri zuzentzaileen bidez, 1.4.6.2. artikuluko ("Hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian antolamenduz kanpo dauden eraikin, eraikuntza eta instalazioak") 2. puntuan xedatutakoa aplikatuko da. Hala ere, ingurumenaren, segurtasunaren eta osasunaren gaineko eraginak gutxitzeko obrak egin ahalko dira.

2.- Antolamendutik kanpoko kalifikazioa duten eraikin, eraikuntza eta instalazioetan kokatutako gainerako erabileretan jarduera garatzen jarraitu ahalko da, harik eta desagertu edo eten arte. Nolanahi ere, hori ez da eragozpen izango jarduerarik gabeko lokaletako erabilera berrien jarduerak sailkatzeko araudi indarduna aplikatzeko.

3.- Planeamenduarekin bat ez datozen eraikin, eraikuntza eta instalazioetan haizu da egon dauden erabilerak mantentzea, harik eta jarduera eten arte; hori guztia, jardueren alorrean indarrean dagoen araudia aplikatzea eragotzi gabe. Halaber, zilegi da erabilera aldaketak egitea eta lokal hutsetan erabilera berriak jartzea, baldin eta kalifikazio xehakatuan baimenduta badaude eta erabileren bateragarritasunari buruzko baldintzak betetzen badituzte.

4.- Antolamendu xehakatuko esparruetan lehendik dauden eta antolamendu xehakatua egin gabe duten eraikin, eraikuntza eta instalazioetan, artikulu honetako 2. puntuan ezarritakoa bete beharko da.

5.- Hirigintza antolamenduarekin bat datozen eraikin, eraikuntza eta instalazioetan, edozein erabilera aldaketa baimenduko da, betiere erabilera berria baimenduta badago eta plan honetan ezarritako bateragarritasun baldintzak betetzen baditu.

6.- Jardueraren etena, artikulu honen ondorioetarako, jarduerak hamabi hilabete baino gehiagoan jarduera ekonomikoen gaineko zergan (JEZ) baja duenean izango da. Jarduera eten dela joko da enpresen titulartasuna eskualdatu bada.

1.4.6.7. artikulua.- Antolamendutik kanpo dauden eta planeamenduarekin bat ez datozen lurzoru urbanizaezineko eraikin, eraikuntza, instalazio eta erabilerak.

1.- Landaguneko zonetan, hiri lurzorurako ezarritako araubidea aplikatuko da.

2.- Gainerako lurzoru urbanizaezinean, lurzoru urbanizaezinean dauden antolamendutik kanpoko eraikin, eraikuntza edo instalazio gisa kalifikatzen dira honako hauek:

a. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 101.2.a artikuluan adierazitako inguruabarretan dauden eraikinak.

b. Babes bereziko J.1 zonetan egon eta kalifikazio orokorrak baimentzen ez dituen erabilerak dituztenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 101. artikuluko 5. eta 6. puntuetan aurreikusitako obrak egin ahalko dira horietan.

3.- Landa zonetan, honako hauek kalifikatuko dira planeamenduarekin bat ez datozen eraikin, eraikuntza edo instalazio gisa: J.2 ("Zona babestuak") zonetan egon, eta kalifikazio orokorrak baimentzen ez dituen erabilerak dituztenak, baina "lehendik badiren erabilera toleratu" gisa hartzen direnak.

Ondorio horietarako, honako erabilera hauek lehendik dauden erabilera toleratuak izango dira:

a. Nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpen prozesuei lotuta ez dauden etxebizitzak. Aldez aurretik zuten eraikigarritasunaren ehuneko 10 handitu ahalko dira gehienez. Ezingo dira egin plan hau behin betiko onartzen denean dauden baino etxebizitza gehiago.

b. Turismoko apartamentuak, oporretarako turismo etxebizitzak, etxe partikularretako ostatuak eta landetxeak arautzen dituen uztailaren 29ko 191/1977 Dekretuan arautzen diren jarduerak eta landa inguruneko turismo ostatuak arautzen dituen maiatzaren 28ko 128/1996 Dekretuan arautzen direnak.

c. Gizarte ekipamendua, honako hauek izan ezik: dantza aretoak, diskotekak eta antzeko jarduerak; jolas eta ausazko jokoak, eta eragin negatiboa dutelako eta nekazaritzako eta naturako ingurumenean

salubridad cuyas deficiencias no puedan resolverse con medidas correctoras, se aplicará lo dispuesto en el punto 2 del artículo 1.4.6.2. "Edificios, construcciones e instalaciones fuera de ordenación en suelo urbano y urbanizable", sin perjuicio de la posibilidad de realizar aquellas obras que reduzcan sus afecciones al medio ambiente, a la seguridad y la salubridad.

2.- El resto de usos situados en edificios, construcciones e instalaciones calificados como fuera de ordenación podrán seguir desarrollando su actividad hasta su desaparición o hasta el cese de aquélla, sin perjuicio de la aplicación de la normativa vigente en materia de Clasificación de Actividades. de nuevos usos en locales sin actividad.

3.- En los edificios, construcciones e instalaciones disconformes con el planeamiento se permite el mantenimiento de los usos existentes hasta que se produzca el cese de la actividad, sin perjuicio de la aplicación de la normativa vigente en materia de actividades; igualmente se permite realizar cambios de uso y situar nuevos usos en locales vacíos, siempre que estén dentro de los autorizados por la calificación pormenorizada y cumplan las condiciones de compatibilidad de los usos.

4.- En los edificios, construcciones e instalaciones preexistentes en AOP pendientes de ordenación pormenorizada se estará a lo dispuesto en el punto 2 de este artículo.

5.- En los edificios, construcciones e instalaciones acordes con la ordenación urbanística se autorizará cualquier cambio de uso, siempre que el nuevo esté autorizado y cumpla las condiciones de compatibilidad establecidas en este Plan.

6.- Se producirá el cese de actividad, a los efectos de este artículo, cuando aquélla sea dada de baja en el impuesto de actividades económicas (IAE), por un período superior a doce meses. Se considerará cese de la actividad la transmisión de la titularidad de las empresas.

Artículo 1.4.6.7.- Edificios, construcciones, instalaciones y usos fuera de ordenación y disconformes con el planeamiento en suelo no urbanizable.

1.- En las zonas de núcleo rural se aplicará el régimen establecido para el suelo urbano.

2.- En el resto del suelo no urbanizable, se consideran calificados como edificios, construcciones o instalaciones fuera de ordenación en suelo no urbanizable:

a. Los edificios en los que se den las circunstancias señaladas en el artículo 101.2.a de la Ley 2/2.006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

b. Los que situados en las zonas J.1, de especial protección, alberguen usos no autorizados por la calificación global.

En ellos se permitirán las obras previstas en los puntos 5 y 6 del artículo 101 de la Ley 2/2.006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

3.- En las zonas rurales se consideran edificios, construcciones o instalaciones calificados como disconformes con el planeamiento, los que, situados en las zonas J.2 "Preservadas", albergan usos no autorizados por la calificación global, pero tienen la consideración de "usos preexistentes tolerados".

A estos efectos son usos preexistentes tolerados los siguientes:

a. Vivienda no vinculada a los procesos productivos agropecuarios. Se autorizará la ampliación de la misma hasta un total del 10 por ciento de la edificabilidad preexistente. No se autorizará el incremento del número de viviendas existentes en el momento de la aprobación definitiva de este Plan.

b. Las actividades reguladas en el Decreto 191/1997, de 29 de julio, por el que se regulan los apartamentos turísticos, las viviendas turísticas vacacionales, los alojamientos en casas particulares y las casas rurales, y en el Decreto 128/1996,de 28 de mayo, por el que se regulan los establecimientos de alojamiento turístico en el medio rural.

c. Equipamiento comunitario, exceptuando: Salas de baile, discotecas y actividades similares; Juegos recreativos y de azar y aquellos otros que por los efectos negativos de la actividad y sobre

eragiten dutelako Udalak bateraezintzat jotzen dituen gainontzeko guztiak. Aldez aurretik zuten eraikigarritasunaren ehuneko 25 handitu ahalko dira gehienez.

4.- Aurreko puntuaren arabera planeamenduarekin bat ez datozen eraikin gisa kalifikatuta ez dauden gainerakoak, lehendik badiren eta antolamenduak finkatu dituen eraikintzat joko dira.

Multzo horren barruan sartzen da baserrien kasu berezia. Horiek berreraiki ahal izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 30. artikuluan adierazitako baldintzetan.

5.- Antolamendutik kanpoko gisa kalifikatuta dauden eraikinetako erabilerek aurrera jarraitu ahalko dute haien jarduera eteten den arte.

Eraikin horietan ezingo da enpresen eta/edo eraikuntzaren titulartasuna eskualdatu. Egoera hori gertatzen baldin bada, jarduera eten dela ulertuko da.

6.- Planeamenduarekin bat ez datozen eraikinetan haizu da egon dauden eraikinak erabiltzea, harik eta jarduera eteten den arte; horrek ez du eragotziko jardueren alorrean indarrean dagoen araudia aplikatzea. Halaber, zilegi da edozein erabilera ezartzea, baldin eta kalifikazio orokorrean baimenduta badago eta bateragarritasunari buruzko baldintzak betetzen baditu.

Artikulu honen ondorioetarako, eraikin horietan jarduera eten dela joko da enpresen eta/edo eraikinen titulartasuna eskualdatu bada.

7.- Halaber, jarduera eten dela joko da, artikulu honen ondorioetarako, jarduerak hamabi hilabete baino gehiagoan jarduera ekonomikoen zergan (JEZ) baja duenean.

1.4.6.8. artikulua.- Kontserbazio betebeharraren edukia.

1.- Eraikin, eraikuntza, urbanizazio, instalazio, lursail, hiri altzari eta publizitateko euskarrien jabeek segurtasun, osasungarritasun, apaintasun publiko eta duintasun egoera onean mantendu beharko dituzte, hirigintzako legedian ezartzen denaren arabera.

Hona hemen kontserbazio betebeharraren edukia:

a. Kontserbazio lan eta obrak, segurtasuna, osasungarritasuna eta apaintasun publikoa zaintzeko baldintzen narriadura saihesteko egiten direnak, eta, halaber, zerbitzu eta instalazioen funtzionamendu egokia lortzeko, eta aldian behin aldatu behar diren elementu edo osagaiak aldatzeko.

b. Egun higiezinak duen balioa ehuneko berrogeita hamarrean (%50) gainditu ez eta eraikina edo instalazioa lehen zeuden segurtasun eta osasungarritasun baldintzetara itzultzeko diren obrak, horretarako egonkortasuna ukitzen duten edota erabilerarako oinarrizko baldintzak mantentzeko balio duten elementu kaltetuak konponduz edo sendotuz. Onura publikoko edo gizarte intereseko arrazoiak direla eta, higiezina kontserbatzea komeni bada, Udalak konponketaren kostuaren gaindikin hori ordain dezake.

2.- Jabetzari lotuta dagoen kontserbatzeko eta/edo konpontzeko betebeharrak ez ditu bazter uzten errentamenduei buruzko legedian ezarrita dauden errentarien betebehar eta eskubideak.

3.- Urbanizazioen kasuan, kontserbazio betebeharra Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 197. artikuluan ezarritakoaren bidez arautuko da.

1.4.6.9. artikulua.- Segurtasunerako, osasungarritasunerako eta apaintasun publikorako gutxieneko baldintzak.

1.- Kontserbazio betebeharra betetzeari edo, betetzen ez denean, betearazpen agindua justifikatzeari dagokionez, segurtasunerako, osasungarritasunerako eta apaintasun publikorako gutxieneko baldintzak honako hauek izango dira:

a. Orubeak:

a.1. Hesiz inguratuta egon beharko dute, 1.5.1.30. artikuluko ("Hesiak") 2. puntuan azaltzen den bezala.

a.2. Istripuren bat eragin dezaketen putzuak eta koskak babestu edo seinaleztatu beharko dira.

el medio rural y natural la Corporación municipal los considere, justificadamente, incompatibles. Se autorizará la ampliación de la misma hasta un total del 25 por ciento de la edificabilidad preexistente.

4.- El resto de los edificios no calificados disconformes con el planeamiento, según los puntos anteriores, tendrán la consideración de edificios preexistentes consolidados por la ordenación.

Dentro de este grupo se inserta el caso especial de los caseríos, los cuales podrán ser reconstruidos en las condiciones señaladas en el artículo 30 de la Ley 2/2.006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

5.- Los usos situados en edificios calificados como fuera de ordenación podrán seguir desarrollando su actividad hasta que se produzca el cese de la misma.

En estos edificios no está permitida la transmisión de la titularidad de las empresas y/o de la edificación. Este supuesto se considerará el cese de la actividad.

6.- En los edificios disconformes con el planeamiento se permite el uso de los edificios existentes hasta que se produzca el cese de la actividad, sin perjuicio de la aplicación de la normativa vigente en materia de Actividades, así como la implantación de cualquier uso que esté dentro de los autorizados por la calificación global y que cumpla las condiciones de compatibilidad establecidas al efecto.

En estos edificios se considerará cese de la actividad, a los efectos de este artículo, la transmisión de la titularidad de las empresas y/o edificaciones.

7.- Se considerará asimismo que ha cesado de actividad a los efectos de este artículo, cuando la actividad sea dada de baja en el impuesto de actividades económicas (IAE).

Artículo 1.4.6.8.- Contenido del deber de conservación.

1.- Los propietarios de edificaciones, construcciones, urbanizaciones, terrenos, instalaciones, elementos de mobiliario urbano y soportes publicitarios deberán conservarlos en buen estado de seguridad, salubridad, ornato público y decoro con arreglo a lo estipulado en la legislación urbanística.

Se considera contenido del deber de conservación:

a. Los trabajos y obras de conservación que tengan por objeto evitar el deterioro de las condiciones de seguridad, salubridad y ornato público de la propiedad, así como el correcto funcionamiento de sus servicios e instalaciones y la reposición habitual de los elementos o componentes cuya naturaleza así lo requiera.

b. Los trabajos de reparación que repongan las construcciones e instalaciones a sus correctas condiciones de seguridad, salubridad y ornato público, restaurando o consolidando los elementos dañados que les afecten o dificulten o deterioren sus condiciones de uso, siempre que el coste de las obras señaladas no exceda del 50 por ciento del valor actual del edificio, excluido el valor del terreno. Si concurren razones de utilidad pública o interés social que aconsejen la conservación del inmueble, el Ayuntamiento podrá subvencionar el exceso del coste de la reparación.

2.- El deber de conservación y/o reparación inherente a la propiedad no excluye las obligaciones y derechos de los arrendatarios establecidos por la legislación sobre arrendamientos.

3.- En el caso de urbanizaciones el deber de conservación se regirá por lo señalado en el artículo 197 de la Ley 2/2.006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Artículo 1.4.6.9.- Condiciones mínimas de seguridad, salubridad y ornato público.

1- A los efectos de cumplir el deber de conservación y en su defecto de justificar el dictado de órdenes de ejecución, se entienden por condiciones mínimas de seguridad, salubridad y ornato público:

a. Solares:

a.1 Deberán estar vallados en la forma establecida en el punto 2 del artículo 1.5.1.30. "Vallados".

a.2 Deberán protegerse o señalizarse los pozos o desniveles que puedan causar accidentes.

a.3. Orubeak garbi mantenduko dira eta, horien gainean, banaketa eta hornidura sareen zortasunak eta aplikagarriak izan daitezkeen gainerakoak beteko dira.

b. Urbanizazioak:

b.1. Lurzati bakoitzaren jabeak du zerbitzu sareetako harguneak mantentzeko erantzukizun osoa, behar bezala funtziona dezaten.

b.2. Urbanizazio partikularretan, jabe bakoitzari dagokio galtzadak, espaloiak, banaketa eta zerbitzu sareak, argiak eta bertako beste elementu guztiak kontserbatzea.

c. Eraikuntzak:

c.1. Itxiturak eta estalkiak urarekiko iragazgaitz mantenduko dira, eta erorketen aurkako babes elementuak ere egoera onean edukiko dira.

c.2. Egituraren elementuak beren eusteko helburua bete dezaten bermatzeko moduan zainduko dira; horretarako, korrosiotik eta agente erasotzaileetatik babestuko dira, baita zimenduetan kalterik sor dezaketen iragazpenetatik ere.

c.3. Zerbitzu sareak eta osasun instalazioak egoera onean eta aireztapen eta argiztapen baldintza egokietan mantendu behar dira, ezarri zaizkien erabilera eta erabilera araubidea aplika daitezkeela bermatzeko.

c.4. Bai eraikinean bai inguruko espazio libreetan, jendearentzat arriskurik ez egoteko behar besteko garbitasuna egongo da.

c.5. Kea eta partikulak kanporatzeko gutxitze eta kontrol elementuen funtzionamendua ongi dagoela ziurtatu behar da.

c.6. Eraikuntzen fatxada behar den moduan zaindu behar da, estaldurako materialak garbituz, margotuz, konponduz edo aldatuz.

2.- Aipatutako ezaugarriak karteletan eta instalazioetan ere aplikatuko dira, betiere, duten izaera kontuan hartuta.

3.- Artikulu honetako edukia osatu eta, hala badagokio, aldatu ahalko da, hirigintza antolamenduaren osagarri izango den udal ordenantza baten bitartez.

1.4.6.10. artikulua.- Behin-behineko obra eta erabileren araubidea.

1.- Salbuespen gisa, Udalak behin-behineko erabilerak baimendu ahalko ditu hiri lurzoru finkatugabean, lurzoru urbanizagarrian eta hornidura publikoko elementuetarako era guztietako lurzoruetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 36. artikuluan ezarritako eran.

2.- Aipaturiko artikuluan ezarritako gainerako betekizunez gain, aurreko erabilerak baimentzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a. Eskatzaileak baimena formalki eskatu izatea, behin-behineko baimen gisa.

b. Erabileraren eta/edo obraren izaera eta helburua behin-behinekoa izatea. Erabilerari dagokionez, frogatu beharko da aldi baterako eta behin-behineko erabilera dela, eta berez, xedea dela eta, ez duela irauteko asmorik, eta beren-beregi adierazi beharko da erabilerak luzeen jota noiz arte iraungo duen jardunean. Proposatutako lurretan erabilera kokatzeko beharra frogatu egin beharko da, horrela aholkatzen duten udalerriko hirigintza inguruabarren arabera, eta ez baimenik ez duen egintza bat legeztatzearen ikuspegitik.

c. Obrek beren eraikuntza ezaugarrietan behin-behinekotasun baldintza zehatzak bete beharko dituzte. Ondorio horietarako, ez dira halakotzat hartuko eraikuntza klasikoko obrak, hormigoi armatuzko zein fabrikazko egiturak eta fabrikazko gainalde eta itxiturak dituztenak. Horien ordez, honako ezaugarri hauek eskatuko dira: metalezko egitura, panel desmuntagarriz osatutako itxiturak, eta gainalde arinak, plakaz zein egitura puzgarriz eginak, edo lonazko gainaldeak.

d. Erabilera edo obrek ez dute inoiz ere eragotziko planeamendua gauzatzea eta ez diote kalterik egingo paisaiak behar duen babesari, ez eta komunikazio bideek eta jabari publiko hidraulikoak behar duten babesari ere. Hori dela eta, ezin onartu izango dira 2 metrotik gorako lur erauzketak eragiten dituzten obrak, ez eta aipatutako neurri hori gainditzen duten hormak eraikitzea eragiten duten obrak ere.

a.3 Se mantendrán limpios y, sobre ellos, se respetarán las servidumbres a las redes de distribución y abastecimiento y otras que fueran de aplicación.

b. Urbanizaciones:

b.1 El propietario de cada parcela es responsable de mantener las acometidas de redes de servicio en correcto estado de funcionamiento.

b.2 En urbanizaciones particulares, correrá por cuenta de sus propietarios la conservación de calzadas, aceras, redes de distribución, servicio de alumbrado y restantes elementos que configuren la urbanización.

c. Construcciones:

c.1 Deberán mantener sus cerramientos y cubiertas estancos al paso del agua, y conservar en buen estado los elementos de protección contra caídas.

c.2 Los elementos de estructura deberán conservarse de modo que garanticen el cumplimiento de su misión resistente, defendiéndolos de los efectos de la corrosión y agentes agresores así como de las filtraciones que puedan lesionar las cimentaciones.

c.3 Deberán mantenerse en buen estado las redes de servicio, instalaciones sanitarias, condiciones de ventilación e iluminación, de modo que se garantice su aptitud para el uso a que estén destinadas así como su régimen de utilización.

c.4 Se mantendrán tanto el edificio como sus espacios libres con un grado de limpieza que evite peligro para las personas.

c.5 Se conservarán en buen funcionamiento los elementos de reducción y control de emisiones de humos y partículas.

c.6 La fachada de las construcciones deberá mantenerse adecentada mediante limpieza, pintura, reparación o reposición de sus materiales de revestimiento.

2.- Las condiciones señaladas serán de aplicación a los carteles e instalaciones de acuerdo con su naturaleza.

3.- El contenido de este artículo podrá ser complementado y en su caso, modificado por una ordenanza municipal complementaria de la ordenación urbanística.

Artículo 1.4.6.10.- Régimen de usos y obras provisionales.

1.- Excepcionalmente el Ayuntamiento podrá autorizar usos de carácter provisional en el suelo urbano no consolidado, el urbanizable y en destinado a elementos de las dotaciones públicas de cualquier clase de suelo, en los términos previstos en el artículo 36 de la Ley 2/2.006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

2.- Además de los requisitos establecidos en mencionado artículo, para que se pueda autorizar los anteriores usos deberán concurrir los siguientes:

a. Que haya sido formalmente solicitada la autorización como licencia a título de precario por el peticionario.

b. Que el uso y/u obra tengan naturaleza y finalidad provisionales. Respecto al uso, se deberá justificar, además de su carácter temporal y provisional, que no posee en sí, por sus propias características y finalidad, una vocación de permanencia, con indicación expresa del plazo temporal máximo de su funcionamiento. Será preciso demostrar la justificación de la necesidad de su ubicación en el terreno propuesto, en función de las circunstancias urbanísticas del municipio que así lo aconsejen, nunca bajo el punto de vista de la legalización de un acto sin licencia.

c. Las características constructivas de las obras han de cumplir las condiciones precisas de provisionalidad. Al efecto no se admitirán como tales las obras de construcción clásica de estructura de hormigón armado o de fábrica y con cubiertas y cierres de fábrica; al contrario, se exigirán las de estructura metálica, cierres de paneles desmontables y cubiertas ligeras de placas o estructuras hinchables, o con coberturas de lona.

d. Los usos u obras no dificultarán en ningún caso, la ejecución del planeamiento y no supondrán un atentado a protección del paisaje ni a la de las vías de comunicación y del dominio público hidráulico. Tampoco se podrán admitir obras que originen desmontes de tierra superiores a 2 metros, o muros de contención que superen la altura indicada.

3.- Aurreko ataletan aipatu den baimena behin-behinean emango da, aldirik luzeen gisa ezarriko den epe jakin baterako, beren-beregi luzatzen ez bada, behintzat, eta luzapen hori ere mugatua izango da. Erabilerak eta obrak eten edo eraitsi beharko dira, eta kalte ordainak jasotzeko eskubiderik gabe, gainera, administrazio emaileak baimena bertan behera uztea erabakitzen duenean, baita ezarritako epea bete ez bada ere.

4.- Ezinezkoa da obrarik edo erabilerarik hastea, baldin eta aurrez, Jabetza Erregistroan jasota egongo den agiri publiko baten bidez, baimena eman izana, baimenaren izaera eta hura ezeztatzeagatiko eta erabileren eta/edo obren etete eta eraisteagatiko kalte ordainik jasotzeko eskubiderik eza formalizatu ez bada. Agiri publikoa formalizatzeko eta behin-behineko baimen gisa erregistroan sartzeko gastuak baimendunaren kontura izango dira.

BOSGARREN TITULUA.- AZPIZONA ERAIKIGARRIETAKO ERAIKUNTZA ETA ERABILERA ARAUTZEN DITUZTEN ORDENANTZAK

1.5.1. kapitulua.- Ordenantzak aplikatzeko oinarrizko definizioak

1. atala. Definizioak eta hirigintzako parametroak.

1.5.1.1. artikulua.- Finka eta lurzatia.

1.- Finka honako hau da: jabe bati edo pro indiviso zenbait jaberi eta ez beste inori esleituriko lurzoru edo eraikuntza unitatea, sestraren mailan, sestratik gora edo zorupean egon daitekeena. Hipotekei buruzko legediari jarraiki Jabetzaren Erregistroan folioa ireki ahal duenean, erregistroko finkatzat hartzen da.

2.- Lurzatia lurzoru unitate bat da, sestraren mailan, sestratik gora edo zorupean, eraikigarritasuna eta erabilera esleiturik dituena, edo hirigintzako erabilera bereizia soilik.

Azpizonetan aplikagarri diren erabilerak eta parametroak esleitzeari dagokionez, honako hau izango da lurzatia: eraikigarritasuna eta erabilera edo hirigintza erabilera bereizia bakarrik esleitu zaion sestrako lurzoru unitatea.

3.- Finkak eta lurzatiak nola eratzen diren eta beren artean zer erlazio dagoen Lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Legearen 17. artikuluan dago araututa.

1.5.1.2. artikulua.- Eraikina edo eraikuntza.

1.- Plan hau aplikatzeari dagokionez, eraikinak izango dira lurzorutik gora edo zorupean dauden eraikuntza guztiak, fabrikaz edo beste edozein materialez eginak. Manufakturatutako objektu guztiak ere eraikintzat hartuko dira, iraunkorrak, mugiezinak edo lurzoruari finkatuak izan edo ez, baldin eta familiaren bizitzan erabiltzeko ezaugarri egokiak badituzte (etxebizitza) edo, orokorrean, edozein jarduera garatzeko erabili ahal badira.

2.- Eraikina banakakoa da, eta eraikin bakarra dela esaten da, arkitekturaren ikuspegitik bereiz daitekeen eraikuntza eta funtzio unitate bat osatzen badu, arkitektura elementuek espazioan mugatzen dutena.

3.- Elkarri lotutako eraikin multzoa dagoenean eta eraikinok aurreko bi zenbakietan adierazitako baldintzak betetzen dituztenean, zenbat eraikin dagoen jakiteko, sarrera edo atari independenteak adina eraikin dagoela ulertu behar da. Elkarren artean komunikaturiko atariek (eraikinaren barrualdetik edota galerien bidez) eraikin bakarra osatuko dute.

Alde horretatik, 1.3.1.8. artikuluko ("Definizioa eta motak") 6. puntuan deskribatutako familia bakarreko etxebizitza atxikien eraikinak eraikin bakarrak izango dira.

4.- Aparkalekurako diren sotoko solairuen bidez bakarrik komunikaturik egonez gero, artikulu honetako 2. puntuan adierazten diren baldintza biak betetzen dituzten eraikinak adina eraikin eratuko da beheko solairutik hasi eta goiko solairuetaraino.

1.5.1.3. artikulua.- Eraikin bakartua.

1.- Araudi honen ondorioetarako, eraikin bakartua alboan beste eraikuntzarik ez duena izango da; ez du albokorik izango, beraz, ez

3.- La autorización prevista en los puntos anteriores se otorgará a precario y por un plazo fijado como tiempo máximo, salvo prolongación expresa de dicho plazo por otro igualmente definido. Los usos y las obras, deberán cesar o demolerse, sin derecho a indemnización, cuando la Administración otorgante acuerde la revocación de la autorización, aún con anterioridad al plazo indicado.

4.- No podrán iniciarse las obras y los usos sin formalizar previamente en documento público, que se ha hecho constar en el Registro de la Propiedad el otorgamiento de la autorización, su naturaleza y el carácter no indemnizable de la revocación de la licencia y del cese y demolición de los usos y/o obras. Los gastos de formalización del documento público y de su acceso registral, como licencia provisional, serán de cuenta del autorizado.

TÍTULO QUINTO.- ORDENANZAS REGULADORAS DE EDIFICACIÓN Y USO DE LAS SUBZONAS EDIFICABLES

Capítulo 1.5.1.- Definiciones básicas para la aplicación de las ordenanzas

Sección 1ª Definiciones y parámetros edificatorios.

Artículo 1.5.1.1.- Finca y Parcela.

1.- Finca es la unidad de suelo o de edificación atribuida exclusiva y excluyentemente a un propietario o a varios en proindiviso, que puede situarse en la rasante, en el vuelo o en el subsuelo. Cuando, conforme a la legislación hipotecaria, pueda abrir folio en el Registro de la Propiedad, tiene la consideración de finca registral.

2.- Parcela es la unidad de suelo, tanto en la rasante como en el vuelo o el subsuelo, que tenga atribuida edificabilidad y uso o sólo uso urbanístico independiente.

A los efectos de la asignación de los usos y parámetros aplicables en las subzonas, se entiende por parcela la unidad de suelo en la rasante que tenga atribuida edificabilidad y uso o sólo uso urbanístico independiente.

3.- La formación de fincas y parcelas y la relación entre ellas vienen reguladas en el artículo 17 de la Ley 8/2007, de 28 de mayo.

Artículo 1.5.1.2.- Edificio o edificación.

1.- A efectos de aplicación del presente Plan, se entiende por edificio, cualquier tipo de construcción que emerge del suelo o que se sitúa en el subsuelo, realizada con fábrica o con empleo de cualquier otro material. También es edificio cualquier objeto manufacturado, con independencia de su durabilidad, inmovilidad o incorporación al suelo, que tenga las características precisas para poder ser utilizada para el desarrollo de la vida familiar (la vivienda) o en general para acoger el desarrollo de cualquier actividad.

2.- Un edificio viene individualizado, y se dice que es edificio único, por constituir una unidad constructiva y funcional individualizable desde el punto de vista arquitectónico, limitada espacialmente por elementos arquitectónicos.

3.- Cuando exista un conjunto de edificios adosados, se debe considerar que existen tantos edificios como entradas o portales independientes entre sí y cuando se cumple lo indicado en los dos números anteriores. Si existen varios portales que se intercomunican por el interior del edificio o por galerías, se considerará que constituyen un único edificio.

En este sentido, el edificio de vivienda unifamiliar adosada descrito en el artículo 1.3.1.8 "Definición y clases", punto 6, tiene el carácter de edificio único.

4.- La intercomunicación de los edificios exclusivamente a través de las plantas de sótano destinadas a aparcamiento, supondrá la constitución, a partir de la planta baja y hacia plantas superiores, de tantos edificios como cuerpos edificados cumplan las dos condiciones señaladas en el punto 2 de este artículo.

Artículo 1.5.1.3.- Edificio aislado.

1.- A efectos de esta normativa, se entiende por edificio aislado, el edificio que no posea solución de continuidad o contigüidad con

sotoan eta ez goiko solairuetan, eta eskailera, korridore, galeria eta antzeko sarbide erkiderik ere ez du izango beste edozein eraikini dagokionez.

2.- Eraikin gorputz bi atxikitzen badira, euren perimetroaren puntu batean (edozein solairutan) bakarrik izanda ere, hirigintzako ondorioetarako horiek ezin izango dira hartu eraikin bakartutzat, nahiz eta egitura, sarbideak eta arkitekturaren gainerako elementuak guztiz independenteak izan.

2. atala. Lurzatiaren parametroak eta baldintzak.

1.5.1.4. artikulua.- Mugak.

1.- Lurzatia mugatzen duten lerro perimetralak dira lurzatien mugak.

2.- Lurzatiaren eta horrek aurrean duen bide edo espazio publiko publikoaren arteko muga egiten duena da aurreko muga; eta gainontzekoak alboetako mugak dira. Horien artean, atzeko muga aurrekoaren kontrako tokian dagoena da.

3.- Lurzatiak bide edo espazio libre publiko bat baino gehiago ukitzen dituen mugak baditu, guztiak aurreko mugatzat joko dira.

1.5.1.5. artikulua.- Mugen gehieneko eta gutxieneko neurriak.

1.- "Mugaren gehieneko neurria" eta "mugaren gutxieneko neurria" plan orokor honek edo berau garatzen duten planek lurzatiko muga baterako edo gehiagotarako ezarritako neurriak dira.

2.- Parametro horiek betetzen ez dituzten loteak sortzen dituen lurzati banaketarik edo eransketarik ezingo da egin.

1.5.1.6. artikulua.- Gutxieneko eta gehieneko lurzati eraikigarria.

1.- Plan orokor honek edo berau garatzen duten planek lurzoru mota guztietarako ezarritako azalera da gutxieneko lurzati eraikigarria. Beraz, lehendik dauden lurzati txikiagoetan ezingo da ezer eraiki.

2.- Plan orokor honek edo berau garatzen duten planek lurzoru mota guztietarako ezarritako azalera da gehieneko lurzati eraikigarria. Beraz, lehendik dauden lurzati handiagoetan ezingo da ezer eraiki eta derrigorrezkoa izango da bananketa edo lurzatikatzea.

1.5.1.7. artikulua. Gutxieneko eta gehieneko lurzatia, lurzatikatzeetarako.

1.- Lurzatikatzeetarako gutxieneko eta gehieneko lurzatiak (edo, besterik gabe, "gehieneko lurzatia" eta "gutxieneko lurzatia") planeamenduak ezarritakoak dira, eta kasuan kasuko planeamendu tresna behin betiko onartu ondoren egiten diren lurzati guztiek gutxienez eta gehienez zenbateko azalera izan behar duten eta izan dezaketen adierazten dute.

2.- Bi parametro horiek betetzen dituzten lurzati guztiak izango dira eraikigarriak.

1.5.1.8. artikulua.- Lurzati eraikietako lur bananketak.

Eraikuntzaren bat duten finkak banantzerakoan, lehendik dauden eraikuntzek kontsumitu duten eraikigarritasuna adierazi beharko da. Eraikigarritasun osoa agortuta badago ezingo da zatirik banandu, banandutako zatia hornidura publiko baterako erabili ezean.

3. atala. Eraikuntzak lurzatian izan beharreko kokapenaren parametroak eta baldintzak.

1.5.1.9. artikulua.- Bideen lerrokadura.

Bideen lerrokadura (edo lerrokadura, besterik gabe) erabilera publikoko bide edo espazio libreetarako lurren eta lurzati eraikigarrien arteko muga ezartzen duen lerroa da. Planeamenduak zehazten du lerrokadura.

Lerrokadura mota hauek bereizten dira:

1. mota: errepideen foru sareko bideen lerrokadura (jabari publikoko zona).

2. mota: ibilgailuentzako kaleen udal sareko bideen lerrokadura (espaloiak, aparkalekuak eta babes eremuak barne).

ninguna otra edificación en ninguna de sus plantas, ya sean de sótano, o elevadas, ni a través incluso de elementos de acceso comunes como escaleras, corredores, galerías, etc.

2.- El adoso de dos cuerpos edificatorios, aunque solo sea en un punto de su perímetro en cualquiera de sus plantas, supondrá que a efectos urbanísticos no se pueden considerar como edificios aislados, aún cuando posean sistema estructural, accesos y demás elementos arquitectónicos plenamente diferenciados.

Sección 2ª. Parámetros y condiciones de la parcela.

Artículo 1.5.1.4.- Linderos.

1.- Linderos son las líneas perimetrales que delimitan una parcela.

2.- Es lindero frontal el que delimita la parcela con la vía o el espacio libre público al que da frente; y linderos laterales los restantes. Dentro de estos últimos, lindero posterior es el opuesto al lindero frontal.

3.- Cuando se trate de parcelas con más de un lindero en contacto con vía o espacio libre público, tendrán la consideración de lindero frontal todos ellos.

Artículo 1.5.1.5.- Dimensiones máxima y mínima de linderos.

1.- "Dimensión máxima de lindero" y "dimensión mínima de lindero" son las establecidas por este Plan General ó por los planes que lo desarrollen para uno o varios linderos de parcela.

2.- No podrán formularse divisiones o agregaciones de parcelas que generen lotes que incumplan tales parámetros.

Artículo 1.5.1.6.- Parcela mínima y máxima edificable.

1.- Parcela mínima edificable es la superficie establecida por este Plan general o por los planes que lo desarrollan para cualquier tipo de suelo de tal modo que las parcelas preexistentes de superficie menor no podrán ser edificadas.

2.- Parcela máxima edificable es la superficie establecida por este Plan General ó por los planes que lo desarrollan para cualquier tipo de suelo de tal modo que toda parcela preexistente de superficie mayor no podrá ser edificada, siendo obligatoria su segregación o parcelación.

Artículo 1.5.1.7.- Parcela mínima y máxima a efectos de parcelaciones.

1.- Parcela mínima y máxima a efectos de parcelaciones (o simplemente, "parcela máxima" y "parcela mínima") son las establecidas por el planeamiento e indica las superficies mínima y máxima que deben y puede, respectivamente, poseer toda nueva parcela surgida con posterioridad a la aprobación definitiva del instrumento de planeamiento correspondiente.

2.- Toda parcela que cumpla estos dos parámetros será edificable.

Artículo 1.5.1.8.- Segregaciones de terrenos de parcelas edificadas.

La segregación de fincas en que existiera alguna edificación, deberá hacerse con indicación de la edificabilidad consumida por las construcciones existentes. Si la totalidad de la edificabilidad estuviera agotada, solamente será posible la segregación cuando la parte segregada se destine a una dotación pública.

Sección 3ª. Parámetros y condiciones de la posición del edificio en la parcela.

Artículo 1.5.1.9.- Alineación viaria.

Alineación viaria (o simplemente, alineación) es la línea señalada por el planeamiento para establecer el límite que separa los suelos destinados a viales o espacios libres de uso público, de las parcelas edificables.

Se distinguen los siguientes tipos de alineación:

Tipo 1: alineación viaria de la red foral de carreteras (zona de dominio público).

Tipo 2: alineación viaria de la red municipal de calles de tráfico rodado (incluye aceras, aparcamientos y espacios de protección).

3. mota: oinezkoentzako kale eta eremuen lerrokadura.
4. mota: berdeguneen (publikoen) lerrokadura.

1.5.1.10. artikulua.- Lurraren erreferentzia altimetrikoen definizioa.

Lurraren erreferentzia altimetrikoek lurretik gora eraikinak duen proiekzio bertikala zehazteko eta altuerak neurtzeko balio dute. Plan honetan, ondoko erreferentzia altimetrikoak erabiltzen dira:

a. Sestra: planeamenduan bide publikoen luzetarako profiltzat ezarritako lerroa da, besterik adierazi ezean, bidearen ardatzaren pare dagoena. Jadanik eginda dauden bideetan lehendik dagoen profila hartuko da sestratzat, sestraren bestelako definiziorik ez badago.

b. Lurraren kota naturala: urbanizatzeko obra gauzatu aurretik lursaileko gune bakoitzak duen altitude erlatiboa da.

c. Berdintze kota. Urbanizazioa gauzatzeko eta altuera neurtzeko + 0 erreferentzia kotatzat hartzen den altitudea da.

1.5.1.11. artikulua. Eraikuntzaren erreferentzien definizioa.

Plan honetako arauetan eraikuntzen erreferentzia hauek erabiltzen dira:

a. Itxitura edo hesia: mugen gainean kokaturiko hesia, lurzatia mugatzen duena.

b. Fatxadako planoa: eraikitako espazioa eta eraiki gabekoa lurraren gainetik bereizten dituen plano bertikala edo plano bertikalen multzoa. Fatxada planoan daude eraikinaren altxaeraren eraikuntza elementu guztiak, salbu eta lerrokadurekiko irtengune baimenduak, teilatu hegal eta erlaitzak eta araudiak baimentzen dituen beste apaingarri batzuk.

c. Eraikuntza lerroa: eraikinaren beheko solairuko fatxadak lurrarekin bat egiten duen lerroa. Aurrekoa edo albokoa izan daiteke, zein mugatara begira dagoen.

d. Mehelina edo mehelin fatxada: eraikuntza mugakidearekin partekatzen den horma, eraikuntza mugakidea ukitzen duena eta, alboko mugarekin bat eginez, lurzatia bere mugakidearengandik bereizten duena.

1.5.1.12. artikulua.- Mugetarainoko tartea.

1.- Mugetarainoko tartea da fatxadako puntu bakoitzaren eta erreferentziako muga hurbilenaren arteko distantzia, mugarekin perpendikularra den lerro baten gainean neurtua.

2.- Gerta daiteke planeamenduak, eraikuntzatik alboetako mugetaraino gorde beharreko tartea arautzean, neurri bat baino gehiago ematea. Halakoetan, lurzatiaren forma irregularragatik atzeko muga bereiztea zaila baldin bada, mugetarainoko tartea neurtzean, hiru irizpide hauek hartuko dira kontuan: a) eraikuntzaren eta inguruko eraikuntzen artean, distantziarik handiena hartzea; b) funtzionalitaterik onena lortzea; eta c) lurzatiak albait espazio librerik handiena izatea.

3.- Sestraren azpiko eraikuntzek ezingo dituzte okupatu, zorupean, mugetarainoko tarteei dagozkien espazioak.

1.5.1.13. artikulua.- Eraikinen artean utzi beharreko tartea.

Eraikinen artean utzi behar den tartea eraikinen fatxaden arteko distantzia da. Bete egin beharko da distantzia hori, eraikuntzak lurzati berean edo aldamenekoetan daudenean; ez da bete beharko, ordea, bideek edo beste espazio publikoek bereizten badituzte.

1.5.1.14. artikulua.- Sakonera eraikigarria.

Sakonera eraikigarriak adierazten du, zenbakiz eta ez irudien bidez, non kokatu behar den eraikin bateko barruko fatxada lerroa. Horretarako, fatxadako puntu bakoitzaren eta lerrokaduraren arteko distantzia perpendikularra zehazten da.

1.5.1.15. artikulua.- Eraikuntzaren mugimendu eremua.

Eraikuntzaren mugimendu eremua "eraikuntzaren baldintzak" planoan grafikoki adierazitako espazioa da, eta horren barruan kokatu behar da eraikuntza.

4. atala. Eraikinak lurzatia okupatzeko parametro eta baldintzak.

1.5.1.16. artikulua.- Eraikuntzak okupatzen duen lurzorua.

1.- "Lurzoruaren okupazioa" da eraikuntzak lurzati eraikigarrian har dezakeen azalera, fatxada planoek plano horizontal baten gainean proiektatuta osatzen duten perimetroaren barrukoa, alegia.

Tipo 3: alineación de áreas y calles peatonales.
Tipo 4: alineación de zonas verdes (públicas).

Artículo 1.5.1.10.- Definición de las referencias altimétricas del terreno.

Las referencias altimétricas del terreno sirven para determinar la proyección vertical del arranque del edificio desde el terreno, así como para realizar la medición de las alturas. El presente Plan emplea las siguientes referencias:

a. Rasante: es la línea que señala el planeamiento, como perfil longitudinal de las vías públicas, tomado, salvo indicación contraria, en el eje de la vía. En los viales ya ejecutados y en ausencia de otra definición de la rasante se considerará como tal el perfil existente.

b. Cota natural del terreno: es la altitud relativa de cada punto del terreno antes de ejecutar la obra urbanizadora.

c. Cota de nivelación. Es la altitud que sirve como cota + 0 de referencia para la ejecución de la urbanización y medición de la altura.

Artículo 1.5.1.11. Definición de las referencias de la edificación.

En la regulación de este Plan se emplean las referencias de la edificación que a continuación se enumeran:

a. Cerramiento o vallado: cerca situada sobre los linderos que delimita una parcela.

b. Plano de fachada: plano o planos verticales que, por encima del terreno, separan el espacio edificado del no edificado, conteniendo en su interior todos los elementos constructivos del alzado del edificio, excepción hecha de los salientes permitido respecto de las alineaciones, de los aleros y las cornisas y otros elementos ornamentales permitidos por la normativa.

c. Línea de edificación: intersección de la fachada de la planta baja del edificio con el terreno. Podrá ser frontal o lateral, según el lindero al que dé frente.

d. Medianería o fachada medianera: lienzo de edificación que es común con una construcción colindante, está en contacto con ella y separa una parcela de la colindante, coincidiendo con el lindero lateral.

Artículo 1.5.1.12.- Separación a linderos.

1.- Separación o retiro a los linderos es la distancia, en cada punto del plano de fachada, entre ésta y el lindero de referencia más próximo, medida sobre una recta perpendicular a éste

2.- En aquellos casos en que el planeamiento establezca distintos valores de la separación entre la edificación y los linderos laterales y cuando por la irregular forma de la parcela sea difícil diferenciarlos, se medirán las separaciones de modo que redunden en la mayor distancia de la construcción a las de su entorno, y en la mejor funcionalidad y mayor tamaño del espacio libre de parcela.

3.- Las construcciones situadas bajo rasante no podrán ocupar en el subsuelo los espacios correspondientes a la separación a linderos.

Artículo 1.5.1.13.- Separación entre edificios.

Separación entre edificios es la dimensión de la distancia que separa sus fachadas. Se habrá de cumplir, tanto si están las construcciones en la misma parcela, como en parcelas adyacentes pero no cuando estén separadas por vías y otros espacios públicos.

Artículo 1.5.1.14.- Fondo edificable.

